***9/2022 Mozioa, Gamesaren eta beste euskal enpresen erabaki guneen galeraren aurrean Jaurlaritzak daukan plangintzari buruz*** (Osoko Bilkuraren erabakia)
(12/11.03.00.00091)

Eusko Legebiltzarrak, 2022ko martxoaren 24an egindako osoko bilkuran, erabaki zuen mozioa onestea, Iker Casanova Alonso EH Bildu taldeko legebiltzarkideak egin zuen interpelazioaren ondorioz aurkeztutakoa.

Lehendakaritza honek, Ganberan indarrean dagoen Erregelamenduko 105.1 artikuluan adierazitakoari jarraituz, agintzen du Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila erabaki hori.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

Eusko Legebiltzarrak, 2022ko martxoaren 24an egindako osoko bilkuran, 9/2022 Mozioa onetsi du, Gamesaren eta beste euskal enpresen erabaki guneen galeraren aurrean Jaurlaritzak daukan plangintzari buruz, honako testu honen arabera:

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eta gainerako erakunde publiko eskudunei eskatzen die jarrai dezatela lanean euskal enpresak lurraldera errotzea eta kanpoko enpresak Euskadira erakartzea errazten duten faktore guztietan, hala nola enpresa estrategikoen errotze-galera saihesteko mekanismoei buruz 2021eko maiatzaren 6an Legebiltzarrean hartutako erabakian jasotakoetan".

Eta horrela jasota geratzeko, eta erabakitakoa bete dadin, ziurtagiri hau egiten da Eusko Legebiltzarreko lehendakariaren oniritziarekin, Gasteizen, 2022ko martxoaren 24an.

**Mahaiko lehen idazkaria, Iñigo Iturrate Ibarra. Ontzat emana, Eusko Legebiltzarreko lehendakaria, Bakartxo Tejeria Otermin**

***

***Moción 9/2022, sobre la planificación que tiene el Gobierno ante la pérdida de los centros de decisión de Gamesa y de otras empresas vascas*** (Acuerdo del Pleno)
(12/11.03.00.00091)

El Parlamento Vasco, en la sesión plenaria celebrada el día 24 de marzo de 2022, adoptó el acuerdo de aprobar la moción consecuencia de interpelación formulada por D. Iker Casanova Alonso, parlamentario del grupo EH Bildu.

Esta Presidencia, al amparo de lo dispuesto en el artículo 105.1 del vigente Reglamento de la Cámara, ordena la publicación del mencionado acuerdo en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

El Pleno del Parlamento Vasco, en la sesión celebrada el día 24 de marzo de 2022, ha aprobado la Moción 9/2022, sobre la planificación que tiene el Gobierno ante la pérdida de los centros de decisión de Gamesa y de otras empresas vascas, con arreglo al siguiente texto:

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco y al resto de las instituciones públicas competentes a seguir trabajando en todos los factores que favorecen el arraigo de las empresas vascas al territorio y la atracción también de empresas foráneas a Euskadi, tales como los recogidos en el acuerdo parlamentario de 6 de mayo de 2021, relativo a mecanismos para evitar la pérdida de arraigo de empresas estratégicas".

Y para que así conste, y en orden a su ejecución, se expide la presente certificación con el visto bueno de la presidenta del Parlamento Vasco, en Vitoria-Gasteiz, a 24 de marzo de 2022.

**El secretario primero de la Mesa, Iñigo Iturrate Ibarra. Visto bueno, la presidenta del Parlamento Vasco, Bakartxo Tejeria Otermin**

***

# EBAZPENAK
# RESOLUCIONES

***Etorkizuneko euskal hezkuntza-sistemari buruzko hitzarmenaren oinarriak zehazteko ponentzia*** (Ponentziaren txostena)
(12/11.09.00.00006)

Mahaiak, 2022ko martxoaren 29ko bileran, agindu du Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila ponentziak egindako txostena.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

***Ponencia para definir las bases del acuerdo sobre el futuro sistema educativo vasco*** (Informe de la ponencia)
(12/11.09.00.00006)

La Mesa, en su reunión del día 29 de marzo de 2022, ordena la publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco del informe de la ponencia.

**La presidenta del Parlamento Vasco**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

**TXOSTENA, ETORKIZUNEKO EUSKAL HEZKUNTZA-SISTEMARI BURUZKO HITZARMENAREN OINARRIAK ZEHAZTEKO PONENTZIAK PRESTATU DUENAREN GAINEAN HEZKUNTZA BATZORDEAK EGINDAKOA**

Hezkuntza Batzordeko Mahaiak, Legebiltzarraren Erregelamenduko 51 eta 140. artikuluei jarraiki, ondoko txostena aurkezten dio Legebiltzarreko lehendakariari.

**TXOSTENA**

*Marina Garcés: "Ikaskuntza gizarte-bizikidetza osoaren humusa da".*
*Jean Piaget: "Kalitatezko hezkuntza inklusiborik gabe eta bizitza osoan ikasteko aukerarik gabe, herrialdeek ez dute lortuko milioika pertsona atzean uzten dituen pobrezia-zikloa haustea" .*
*Zer ikusi, ha ikasi (euskal esaera zaharra).*

**"EUSKAL HEZKUNTZAREN ERALDAKETARAKO OINARRIEN AKORDIOA"**

**OINARRIAK**

**Sarrera**

**Euskal hezkuntzaren ekintza eraldatzailea**

XXI. mendeko euskal gizartea, Europako beste hainbat komunitateren antzera, eraldatze-prozesu batean murgilduta dabil, etengabeko aldaketa eta ziurgabetasuna dituela ezaugarri nagusiak. Euskal hezkuntzak, azken hamarkadetan, rol eraldatzailea jokatu du, errealitate berri bat egituratzen duena, eta errealitate hori ondasun komun eta partekatua bihurtu da, gure ohiturari edo kultura-jokabideari gehituz. Erakundeen eta gizarte-eragileen ekintza konbinatua gakoa izan da horretan, eta hala izaten jarraitu behar du.

Euskal hezkuntzari zorrotz begiratzeko unea da. Asko da egin dena baina asko da, era berean, egiteko daukana. Egungo eta etorkizuneko erronkei erantzuteko beharrezkoak ditu: (i) berrikuntza-kulturaz jabetzea; (ii) hezkuntza-prozesuari aplika dakizkiokeen ekarpen zientifikoak aintzat hartzea; (iii) ikusmiran izatea ikaskuntzaren subjektu aktibo diren ikasle ahaldunduak, bai eta ikasleak gidatzen eta laguntzen dituzten irakasleak eta familiak ere; (iv) hezkuntza formaleko eta ez formaleko eskola-antolaketa eraikitzea, euskal ingurune soziokultural eta instituzionalarekin elkarrekintzan kudeatzen duten ikastetxe ahaldunduekin; (v) gobernantza-eredu berria ezartzea, erantzunkidea, deszentralizatua eta udalerri, lurralde historiko eta autonomia mailan egituratua; eta (vi) hezkuntza-sistema inklusiboa bermatzea.

**INFORME QUE FORMULA LA COMISIÓN DE EDUCACIÓN EN RELACIÓN CON EL REALIZADO POR LA PONENCIA PARA DEFINIR LAS BASES DEL ACUERDO SOBRE EL FUTURO SISTEMA EDUCATIVO VASCO**

La Mesa de la Comisión de Educación, de conformidad con los artículos 51 y 140 del Reglamento del Parlamento, tiene el honor de remitir a la presidencia de la Cámara el siguiente

**INFORME**

*Marina Garcés: "El aprendizaje es el humus de toda la convivencia social".*
*Jean Piaget: "Sin una educación inclusiva de calidad y sin oportunidades de aprendizaje a lo largo de la vida, los países no conseguirán romper el ciclo de pobreza que deja atrás a millones de personas".*
*Zer ikusi, ha ikasi (antiguo proverbio vasco).*

**"ACUERDO DE BASES PARA LA TRANSFORMACIÓN DE LA EDUCACION VASCA"**

**BASES**

**Introducción**

**La acción transformadora de la educación vasca**

La sociedad vasca del siglo XXI, al igual que otras comunidades europeas, se halla inmersa en un proceso de transformación caracterizado por el cambio permanente y la incertidumbre. La educación vasca ha desempeñado un rol transformador, estructurante de una nueva realidad, a lo largo de las últimas décadas, hasta constituir un bien común y compartido, que se incorpora a nuestro *habitus* o conducta cultural. La acción combinada de las instituciones y agentes sociales ha sido y debe seguir siendo su clave.

Es el momento de mirar con rigor a la educación vasca. Es mucho lo que se ha hecho, pero es también mucho lo que queda por hacer. La respuesta a los retos actuales y futuros exige: (i) tomar conciencia de la cultura de la innovación; (ii) considerar las aportaciones científicas aplicables al proceso educativo; (iii) visionar un alumnado empoderado como sujeto activo del aprendizaje, así como a las familias y al profesorado que guían y acompañan al alumnado; (iv) construir una organización escolar de educación formal y no formal con centros empoderados que gestionen en interacción con el entorno sociocultural e institucional vasco; (v) implantar un nuevo modelo de gobernanza, corresponsable, colaborativo, descentralizado y estructurado a nivel municipal, de territorio histórico y autonómico; y (vi) garantizar un sistema educativo inclusivo.

Ordua da, beraz, ohiko inertziak eta konfort-markoak uzteko, hezkuntzaren funtsezko arazoei aurre egiteko eta irtenbide justuak eta gizartea asebeteko duten bideak bilatzeko.

Euskal hezkuntza-ereduaren hobekuntzan sakontzeko beharrak ikaslea du helmuga, izan ere, bera da pertsona gisa garapen integrala lortzen lagundu nahi dion eta gizarteari bere ekarpena egiten erraztu nahi duen sistemaren erdigunea, eskola-arrakasta bultzatuz gainera.

Gizarte-ongizatea eta kohesioa ondasun immaterialen eta ekonomikoen albokoak dira. Hezkuntzak berebiziko garrantzia du bi ondasun horien zaintzan. Gainera, ondasun kolektiboek eragina izan dezakete nortasunen sorreran. Gure herrialdean talde nortasun desberdinak dituzten pertsonak bizi dira, bai eta askotarikoak ere, eta hezkuntza-sistemak nortasun horiek errespetatu behar ditu, arreta berezia eskainiz euskal kulturari.

Ekitatea errazten duen hezkuntza humanista baten alde egiten du Euskal Hezkuntza Sistemak, alderdi formalak eta ez-formalak integratzen dituena, autoestimu pertsonala eta kolektiboa bultzatzen dituena, norberarengan eta gainerakoengan konfiantza lantzen duena, ko-irakaskuntza praktikatzen duena; eta sistema ebaluatzen duena garapen pertsonal, profesional eta sozialarekin konprometitua dagoen irakasleriarekin batera.

Era horretan, eskola-antolamendua bizikidetza-espazio bilakatzen da eta gizarte-inklusiorako gaurko eta etorkizuneko oinarrizko pieza. Horixe da euskal hezkuntzaren ekintza eraldatzailearen erronka berria.

**Zergatik lege bat?**

Euskal hezkuntza eta bere etorkizunaren gaineko barne-hausnarketa sakonean murgilduta dabiltza zenbait profesional eta hezkuntza-aditu, urtetan bildutako ezagutza, esperientzia eta konpromisoa oinarritzat hartuta. Eragile guztien engaiamendua bilduz lortuko da etorkizuneko Euskal Hezkuntza Sistema aurrerakoi, bateratzaile, berdintzaile, arrakastatsu eta kalitatezkoa.

Gure hezkuntza-sistemaren ezaugarrietako bat da eskolatzeari buruzko erreferentziazko adierazleen multzo bat duela, dela eskolatzean, dela eskola-uzteko tasan, dela goi-mailako hezkuntza-maila nabarmena edo egokia duelako, erakusten digutenak hezkuntza-sistema ona dugula. Era berean, beste erronka batzuei ere erantzun behar zaie, hala nola gero eta askotarikoagoa eta zorrotzagoa den gizarte baten eskaerei, edo egungo erronka demografikoen eta aldaketa teknologikoen ondorioei. Badakigu hezkuntza-hobekuntzak epe ertain eta luzera direla hautemangarriak; beraz, denbora eta egonkortasuna behar dira, eta, aldi berean, hurrengo aldaketetara egokitzeko malgutasuna eta gaitasuna.

Es hora, pues, de abandonar las inercias y los marcos de confort habituales, afrontar los problemas esenciales de la educación y buscar soluciones justas y vías que satisfagan a la sociedad.

La necesidad de profundizar en la mejora del modelo educativo vasco parte de la alumna y el alumno como centro de un sistema que pretende contribuir a su desarrollo integral como persona y facilitar su contribución a la sociedad, propiciando su éxito escolar.

El bienestar social y la cohesión guardan relación con el patrimonio inmaterial y económico. La educación juega un papel fundamental en el cuidado de ese patrimonio. Además, el patrimonio colectivo puede influir en la creación de identidades. En nuestro país viven personas con identidades colectivas diferentes, así como diversas, a las que el sistema educativo debe respetar, prestando especial atención a la cultura vasca.

El Sistema Educativo Vasco aboga por una educación humanista que facilite la equidad, que integre los aspectos formales y no formales, que impulse la autoestima personal y colectiva, que cultive la confianza de cada persona en sí misma y en las demás, que practique la codocencia y que evalúe el sistema de manera conjunta con un profesorado comprometido con el desarrollo personal, profesional y social.

Así, la organización escolar se transforma en espacio de convivencia y pieza básica de presente y futuro para la inclusión social. He ahí el nuevo reto de la acción transformadora de la educación vasca.

**¿Por qué una ley?**

Un buen número de profesionales y expertos educativos están llevando a cabo una profunda reflexión interna sobre la educación vasca y su futuro, a partir del conocimiento, la experiencia y el compromiso adquiridos durante años. Aglutinando el compromiso de todos los agentes se conseguirá un futuro Sistema Educativo Vasco progresista, integrador, igualitario, exitoso y de calidad.

Nuestro sistema educativo se caracteriza por un conjunto de indicadores de referencia en materia de escolarización, ya sea en la tasa de abandono escolar, ya sea en el nivel de educación superior notable o idóneo, que nos muestran que contamos con un buen sistema educativo. Pero es preciso dar respuesta a otros retos, tales como las demandas de una sociedad cada vez más diversa y exigente, o los derivados de los datos demográficos y de los cambios tecnológicos. Sabemos que las mejoras educativas son perceptibles a medio y largo plazo, por lo que se requiere tiempo y estabilidad, al tiempo que flexibilidad y capacidad para adaptarse a los próximos cambios.

Lege berri batek, Euskal Hezkuntza Sistemari beharrezko den legegintza-maila emateaz gain, gizarte-adostasun zabala bildu behar du hezkuntza-sistema hori eraikitzeko prozesuan, euskal gizartearen premien eta gaitasunen arabera modu mailakatu eta egingarrian taxutzeko. Akordio konstruktibo, sinesgarri eta itxaropentsu bat sortzeko aukeraren aurrean gaude, datozen hamarkadetan heldu beharreko hezkuntza-erronketarako bidean lagun dezakeen lege baten inguruan. Horregatik, zentzu estrategikoa aitortzen diogu.

Euskal Hezkuntza Sistemak Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten ikastetxe guztiak biltzen ditu. Ikastetxeen arteko araubide juridikoan dauden aldeak funtsezkoak dira alderdi askotan, eta ez dira oztopo aniztasun horretatik gizartean betetzen duten eginkizuna aitortu behar izateko. Sistema horretako protagonismoa eskola publikoari dagokio, oinarrizko erreferentzia baita ikasle guztientzako sarbide unibertsala bermatzen duelako eta inplikatutako gizarte-sektore guztien parte-hartzea sustatzen duelako. Horregatik, nabarmentzekoa da, halaber, botere publikoek eskola publikoarekiko duten erantzukizuna eta konpromisoa, finantzaketa nahikoa eta egonkorra emanez eginkizunak kalitate- eta eraginkortasun-irizpideen arabera garatu ahal izateko. Hezkuntza-itunen bidez, Eusko Jaurlaritzak funts publikoekin sostengatuko ditu, titulartasun publikokoak izan ez arren, legeak ezarritako printzipioak eta helburuak betetzen dituzten ikastetxeak, eta lege berriak ezarriko dituen konpromiso eta betebeharrak beren gain hartzen dituztenak.

Laburbilduz,

XXI. mendeko euskal hezkuntzaren aldeko lege bat behar dugu, behar bezala erantzungo diona gure herriaren bilakaera historikoari eta euskal gizartearen aukera-aberastasunari, betiere balio publikoen marko berriari eusten, zerbitzu publikoa eskaintzen dutenek eguneratuko dituzten eskubideak eta betebeharrak birpentsatu eta birformulatuta izaera publiko horri dagokion eran. Gure herriaren errealitatean oinarrituta, Administrazioaren eta ikastetxeen arteko harremanak birformulatuko ditugu, betiere hezkuntza-deszentralizazioa, toki-erakundeen protagonismo zabalagoa, familien partaidetzaren sustapena eta hezkuntza formala eta ez-formalaren arteko elkarlana direlarik ortzi-muga. Lege berriak ausardiaz eta ilusioz erraztu behar du bide hori, gizarte osoaren eta erakunde guztien konplizitatea bilatuz.

## EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMAREN BALIO, PRINTZIPIO ETA HELBURUAK

### Balioak

Hezkuntza da norbere nortasuna garatzen duen prozesua, bertan eraikitzen dira ingurune natural, sozial eta kulturalaren gaineko ezagutza eta ingurune horretan gizarte-harremanek ardazten dituzten balioak.

Una nueva ley, además de dotar al Sistema Educativo Vasco del nivel legislativo necesario, debe concitar un amplio consenso social en el proceso de construcción de dicho sistema educativo, en orden a configurarlo de forma gradual y factible, de acuerdo con las necesidades y capacidades de la sociedad vasca. Estamos ante la oportunidad de crear un acuerdo constructivo, creíble y esperanzador en torno a una ley que pueda acompañar y señalar el camino hacia los retos educativos que debemos abordar en las próximas décadas. Le reconocemos, por ello, un sentido estratégico.

El Sistema Educativo Vasco engloba todos los centros con sede en la Comunidad Autónoma del País Vasco. Las diferencias en el régimen jurídico entre centros son fundamentales en muchos aspectos y no obstáculo para que desde esa diversidad se reconozca su papel en la sociedad. El protagonismo de este sistema recae en la escuela pública como referencia básica que garantiza el acceso universal a todo el alumnado y promueve la participación de todos los sectores sociales implicados. Por ello, también es destacable la responsabilidad y el compromiso de los poderes públicos con la escuela pública, dotándola de financiación suficiente y estable para que pueda desarrollar sus funciones con criterios de calidad y eficiencia. A través de los conciertos educativos, el Gobierno Vasco sostendrá con fondos públicos a los centros que, sin ostentar la titularidad pública, cumplan los principios y objetivos establecidos por la ley, y asuman los compromisos y las obligaciones que establecerá la nueva ley.

En resumen,

Necesitamos una ley para la educación vasca del siglo XXI que haga justicia a la evolución histórica de nuestro país y a la riqueza de oportunidades de la sociedad vasca, manteniendo siempre el nuevo marco de valores públicos, repensando y reformulando los derechos y deberes que actualizarán quienes prestan ese servicio público, tal como corresponde a su carácter público. Sobre la base de la realidad de nuestro país, reformularemos las relaciones entre la Administración y los centros educativos, siempre con el horizonte de la descentralización educativa, el más amplio protagonismo de las entidades locales, el fomento de la participación de las familias y la colaboración entre la educación formal y no formal. La nueva ley debe facilitar ese camino con valentía e ilusión, buscando la complicidad del conjunto de la sociedad y de todas las instituciones.

## VALORES, PRINCIPIOS Y FINES DEL SISTEMA EDUCATIVO VASCO

### Valores

La educación es el proceso en virtud del cual se desarrolla la propia personalidad, y a través de ella se construye el conocimiento sobre el medio natural, social y cultural, así como el sistema de valores sobre

Horrela, jabetzen gara gure identitateaz, gizarte baten parte izateagatik ditugun eskubideez eta betebeharrez, eta gizarte hori eraldatuz hobetzeko dugun aukeraz. Horrela, gure identitateaz, gizarte baten parte izateak eta gizarte hori eraldatuz hobetzen laguntzeak sortzen dituzten eskubideez eta betebeharrez jabetzen gara.

el que se articulan las relaciones sociales focalizan en ese entorno. Así, adquirimos conciencia de nuestra identidad y de los derechos y deberes resultantes de formar parte de una sociedad y de contribuir a su mejora, transformándola.

Hezkuntzak prestatzen gaitu elkarrekin bizitzeko, bizi garen gizartearen parte izateko eta hura hobetzen laguntzeko. Hauxe da hezkuntza- sistemaren bigarren ardatza. Ikastetxeetan ikasten dugu elkarrizketan jarduten, gatazkak zentzuz konpontzen eta bizitza osoan erabakigarria izango dugun demokraziarako hezkuntza eraikitzen. Gizartean bizitzea ahalbidetzen duten balioak eta esperientziak transmitituko dituen eskola nahi dugu, hala nola balio zibikoak, publikoarekiko eta komunarekiko ardura, indarkerien prebentzioa –genero-indarkeria eta sexu-indarkeria barne–, emakumeen eta gizonen arteko bizikidetza sinergikoa edo naturaren zaintza. Euskal Hezkuntza Sistemak konpromiso berezia du euskararekin, bere kulturarekin eta haren transmisioarekin. Ikastetxea da identitate irekiak eraikitzeko espazioa, norberarena unibertsalarekin artikulatzen ikasten den heinean. Eskolan ikasten dugu gure etorkizun pertsonal eta kolektiboa eraikitzen, bertan ikasten baitugu beste identitate-esperientzia batzuk ere kontuan hartzen, pluralismoaren eta berdintasunaren balioa aurkitzen dugun espazioa baita.

La educación nos prepara para convivir, formar parte de la sociedad en la que vivimos y contribuir a su mejora. Este es el segundo eje del sistema educativo. En los centros educativos aprendemos a dialogar, a resolver los conflictos de manera racional y a construir una educación para la democracia que sea determinante a lo largo de nuestra vida. Queremos una escuela que transmita valores y experiencias que permitan vivir en sociedad, como valores cívicos, responsabilidad con lo público y lo común, prevención de las violencias –incluidas la violencia de género y violencia sexual–, convivencia sinérgica entre mujeres y hombres o cuidado de la naturaleza. El Sistema Educativo Vasco está especialmente comprometido con el euskera, su cultura y su transmisión. El centro educativo es el espacio para construir identidades abiertas, a medida que se aprende a articular lo propio con lo universal. En la escuela aprendemos a construir nuestro futuro personal y colectivo, donde también aprendemos a tener en cuenta otras experiencias identitarias, ya que es un espacio en el que encontramos el valor del pluralismo y la igualdad.

Jakintza da Euskal Hezkuntza Sistemaren hirugarren ardatza. Eskola da gizakiek munduan bizitzeko duten lanabes handia, bereziki XXI. mende honetan pentsamenduari erronka handiak ezartzen baitizkio. Ez dago gizarte heldurik jakintzaren eta haren hazkunde eta hedapenaz arduratzen direnen balioa onartzen ez duenik. Ezagutza eta haren ondorioak –arrazoitutako argudiorako gaitasuna, gertakari eta ebidentzien errespetua, ziurtasun ororen mugen kontzientzia, ikas-prozesuaren beraren kontzientzia hartzea– dira gizakiari bere garapenean lagundu dioten balioak.

El conocimiento es el tercer eje del Sistema Educativo Vasco. La escuela es la gran herramienta de que dispone el ser humano para habitar el mundo, muy especialmente en este siglo XXI, que plantea enormes desafíos al pensamiento. No hay sociedad madura donde no sea reconocido el valor del saber y de quienes se ocupan de su crecimiento y difusión. El conocimiento y sus corolarios –la capacidad de argumentación razonada, el respeto a los hechos y las evidencias, la conciencia de los límites de toda certeza, la toma de conciencia del propio proceso de aprendizaje– son los valores que han ayudado al ser humano en su desarrollo.

Gure ikasgeletatik aterako diren belaunaldi berriek aurkikuntza zoragarriak egin ahal izango dituzte jakintzaren abenturaren eskutik. Eta gizartearen eraldaketarako protagonista horiek, inolako asmo elitistarik gabe lortu ahal izango dute euskal gizarteak barneratu ditzan kultura zientifiko zabala, teknologiarekiko estimua eta gogoeta egiteko gaitasun kolektiboa bere inplikazio etikoen, sozialen eta ingurumenari lotutakoen inguruan.

Las nuevas generaciones que saldrán de nuestras aulas podrán realizar maravillosos descubrimientos de la mano del conocimiento. Y, en tanto que protagonistas de la transformación social, se verán en condiciones de lograr, sin propósito elitista alguno, que la sociedad vasca adquiera una amplia cultura científica, aprecio por la tecnología y capacidad colectiva de reflexionar sobre sus implicaciones éticas, sociales y medioambientales.

Ikasleak erdigunean dituen Euskal Hezkuntza Sistemaren ortzi-mugak zazpi ezaugarri ditu:

- Pertsona ona, (i) Ongizate fisikoa, emozionala eta mentala. (ii) Autonomia, gorputz-autonomia, autorregulazioa, autoestimua, erresilientzia, erantzukizuna, autozaintza eta elkarren arteko zaintza. (iii) Bidezkoa, solidarioa eta berdintasunarekin eta iraunkortasunarekin konprometituta.

El horizonte de un Sistema Educativo Vasco centrado en el alumnado muestra siete características:

- Buena persona. (i) Bienestar físico, emocional y mental. (ii) Autonomía, autonomía corporal, autorregulación, autoestima, resiliencia, responsabilidad, autocuidado y cuidado mutuo. (iii) Persona justa, solidaria y comprometida con la igualdad y la sostenibilidad.

- Herritar ona. (i) Komunitateko kide izatearen sentimendua, gizarte-konpromisoa, parte-hartzea, esparru publikoan jarduteko gaitasuna (hitz egitea, entzutea, argudiatzea, zer esan eta esaten jakitea). (ii) Adimen kolektiboa, herritartasun kritikoa...

- Profesional ona. (i) Jakin-mina, sormena eta autoerregulazioa. (ii) Ikasten ikastea, orain ezagutzen ez diren lanbide berriei aurre egiteko.

- Hezkidetza da Euskal Hezkuntza Sistemaren laugarren ardatza. Ikasle orok hezkidetzan oinarrituriko hezkuntza jasotzeko eskubidea du; hots, genero-estereotiporik gabeko didaktikan oinarrituriko hezkuntza jasotzeko eta sexu-genero sistemaz hausnarketa kritikoa egiteko eskubidea. Horren baitan, zeharkakotasunez landuko dira hezkuntza afektiboa eta sexuala. Hori horrela, Euskal Hezkuntza Sistemako ikastetxeek hezkidetza-plan bat izango dute.

- Parekidetasuna, aniztasuna eta askatasuna ikastetxe osoarentzako printzipioak izango dira, eta esplizituki tratatuko dira curriculumean zein zeharkakotasunez.

- Horretaz gain, Euskal Hezkuntza Sistemak bermatuko du ikasle orok krisi ekologikoaren testuinguru historikoan bizitzaren iraunkortasunaren alde ekiteko gaitasunak eskuratzea. Gaurko eta biharko belaunaldien ongizatean eragin bortitza izango duen agertoki historiko hain arriskutsu hau kudeatuko duten pertsona kritiko eta gaituak hezteko betebeharra du euskal hezkuntzak XXI. mende honetan, 2030 Agendaren norabidean.

- Euskal Hezkuntza Sistema laikoa da.

**Printzipioak**

Euskal Hezkuntza Sistemak Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten ikastetxe guztiak biltzen ditu. Ikastetxeen arteko araubide juridikoan dauden aldeak funtsezkoak dira alderdi askotan, baina ez dira oztopo aniztasun horretatik gizartean betetzen duten eginkizuna aitortu behar izateko. Sistema horretako protagonismoa euskal eskola publikoari dagokio, oinarrizko erreferentzia baita ikasle guztientzako sarbide unibertsala bermatzen duelako eta inplikatutako gizarte-sektore guztien parte-hartzea sustatzen duelako. Horregatik, nabarmentzekoa da, halaber, botere publikoarekiko duten erantzukizuna eta konpromisoa, finantzaketa nahikoa eta egonkorra emanez, eginkizunak kalitate- eta eraginkortasun-irizpideen arabera garatu ahal izateko. Hezkuntza-itunen bidez, Eusko Jaurlaritzak funts publikoekin sostengatuko ditu, orobat, titulartasun publikokoak ez izan arren, legeak ezarritako printzipio eta helburuak betetzen dituzten ikastetxeak, eta legeak ezartzen dizkien konpromiso eta

- Buen/a ciudadano/a. (i) Sentimiento de pertenencia a la comunidad, compromiso social, participación, capacidad de actuar en el ámbito público (hablar, escuchar, argumentar, saber qué decir y cómo decirlo). (ii) Inteligencia colectiva, ciudadanía crítica…

- Buen/a profesional. (i) Curiosidad, creatividad y autorregulación. (ii) Aprender a aprender para desempeñar nuevas profesiones aún desconocidas.

- La coeducación es el cuarto eje del Sistema Educativo Vasco. Todo alumno y alumna tiene derecho a una educación coeducativa basada en una didáctica sin estereotipos de género y a una reflexión crítica sobre el sistema sexo-género. En este marco, se trabajará de forma transversal la educación afectiva y sexual. Así, los centros del Sistema Educativo Vasco contarán con un plan de coeducación.

- La paridad, la diversidad y la libertad serán principios para todo el centro, y serán tratados de forma explícita tanto en el currículo como de forma transversal.

- Además, el Sistema Educativo Vasco garantizará que todo el alumnado adquiera las capacidades para emprender por la sostenibilidad de la vida en el contexto histórico de crisis ecológica. La educación vasca tiene en este siglo XXI la obligación de educar a las personas críticas y capacitadas que gestionen este escenario histórico tan peligroso que tendrá un impacto brutal en el bienestar de las generaciones de hoy y de mañana, en la dirección de la Agenda 2030.

- El Sistema Educativo Vasco es laico.

**Principios**

El Sistema Educativo Vasco integra todos los centros con sede en el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Las diferencias de régimen jurídico entre los centros, sustanciales en muchos aspectos, no constituyen obstáculo para que deba reconocerse el papel social que desempeñan desde su diversidad. El protagonismo en dicho sistema corresponde a la escuela pública vasca, referente básico que garantiza el acceso universal a todo el alumnado y promueve la participación de todos los sectores sociales implicados. Por ello, cabe asimismo destacar la responsabilidad y el compromiso que para con ella tienen los poderes públicos, dotándole de una financiación suficiente y estable que permita desarrollar sus funciones bajo criterios de calidad y eficacia. Bajo la forma de conciertos educativos, el Gobierno Vasco sostendrá también con fondos públicos aquellos centros que, no siendo de titularidad pública, cumplan con los principios y objetivos

betebeharrak beren gain hartzen dituztenak

establecidos por la ley, y asuman los compromisos y obligaciones que esta les impone.

Euskal Hezkuntza Sistemak ikasle guztiak kalitatezko eta bikaintasunezko hezkuntza izatearen alde eginez, bizikidetza positiboa, aukera-berdintasuna, aniztasunarekiko eta sinesmen-askatasunarekiko errespetua zainduko ditu, indarkeriak eta bereizkeriak prebenituz, printzipio horiek guztiak ikasle bakoitzarengandik hezkuntza-komunitatera hedatuz joan daitezen.

El Sistema Educativo Vasco, en su apuesta por una educación de calidad y excelencia para la totalidad del alumnado, velará por la convivencia positiva, la igualdad de oportunidades y el respeto a la pluralidad y a la libertad de creencias, previniendo las violencias y discriminaciones, de forma que tales valores se difundan desde cada alumno y alumna al conjunto de la comunidad educativa.

Eredu honen garapenak giltzarri bat du: hezkuntza-erakundeen autonomia. Eta horrek esan nahi du, hezkuntza-proiektuek behar duten lidergo pedagogikoaren autonomia, eta autonomia ere hezkuntza-proiektua kudeatu eta hezkuntza-komunitatearen parte-hartze demokratikoa ahalbidetzeko.

El desarrollo de este modelo tiene una clave: la autonomía de las instituciones educativas. Ello conlleva la autonomía del liderazgo pedagógico que requieren los proyectos educativos y autonomía para gestionar el proyecto educativo y posibilitar la participación democrática de la comunidad educativa.

**Helburuak**

**Fines**

Hezkuntzaren helburu nagusia da hezkuntza-eskubidea egiazki gauzatzen dela bermatzea; askotariko ikasleen garapen integrala eta ikaskuntza malgua bultzatuz, zeregin hori balioetan eta bizikidetza positiboan finkatuz, eta kalitatezko eta bikaintasunezko hezkuntza-aukerak bermatuz.

El objetivo principal de la educación es garantizar el ejercicio efectivo del derecho a la educación, impulsando el desarrollo integral y el aprendizaje flexible del alumnado diverso, consolidando esta tarea en valores y convivencia positiva, y garantizando oportunidades educativas de calidad y excelencia.

Hezkuntzak beharrezko diren ezagutzak eskaini behar dizkie ikasleei irizpide propioa eskuratzen laguntzeko, eta, horrela, ondo oinarritutako erabaki libreak hartzeko. Eta ezagutza sistematizatuaren iturri nagusia denez gero, oinarrizko tresna izan behar du ikusmira kritikoa duten eta herritartasuna erabat gauzatzeko gaitasuna duten pertsonak garatzeko; horrexek bihurtzen du hezkuntza ezinbestekoa demokratiko batean Jasotako informazioak errealitatearekin kontrastatuz eta apaltasun epistemikoz jokatuz lantzen da ikusmira kritikoa, berdinak diren pertsonaz osaturik dagoen gizarte batean inork ez baitu azken hitza.

La educación debe ofrecer al alumnado los conocimientos necesarios para ayudarle a adquirir un criterio propio y así tomar decisiones libres bien fundadas. Y, en tanto que fuente principal de conocimiento sistematizado, debe constituir un instrumento básico para el desarrollo de personas con visión crítica y capacidad de ejercer plenamente la ciudadanía, lo que hace de ella un elemento imprescindible para una sociedad democrática. La visión crítica se adquiere contrastando las informaciones recibidas con la realidad y actuando con humildad epistémica en una sociedad compuesta por personas iguales, ya que nadie tiene la última palabra.

Hezkuntzak gaitasun nahikoak eman behar ditu lanbide batean jarduteko eta bizi-proiektu autonomo bat garatu ahal izateko. Ikuspegi kolektibotik begiratuta, gizartearen funtzionamendu egokirako eta etorkizunean beharko diren baliabideak emateko gai izango den garapen ekonomiko sendorako giltzarria da prestakuntza, gero eta garrantzi handiagoa baitu gure gizartean pertsona kualifikatu gehiago eta kualifikatuagoak izatea.

La educación debe proporcionar competencias suficientes para ejercer una profesión y desarrollar un proyecto de vida autónomo. Desde el punto de vista colectivo, la formación es clave para el buen funcionamiento de la sociedad y para un desarrollo económico sólido, capaz de proporcionar los recursos necesarios en el futuro, de ahí la importancia creciente de que nuestra sociedad cuente con un número cada vez mayor de personas cualificadas.

Euskal Hezkuntza Sistemak konpromisoa hartuko du, lege berriaren bidez, subjektu aktibo gisa ahaldundutako ikasleak hezteko, komunitatean ikasten duten ikasleak, giza erronkei eta gizarte-, kultura- eta ingurumen-erronkei erantzuna emanez, eginkizun horretan erantzukizuna partekatzen duten familia eta irakasleekin batera.

El Sistema Educativo Vasco se comprometerá, mediante la nueva ley, a formar a un alumnado empoderado como sujeto activo de su aprendizaje, un alumnado que aprenda en comunidad, dando respuestas a los retos humanos, sociales, culturales y medioambientales, y con el acompañamiento de unas familias y un profesorado corresponsables en el empeño.

Euskal Hezkuntza Sistemak ikasleen sarbidea eta onarpena bermatzeko mekanismoak ziurtatuko ditu, mekanismo horiek baitira eskolatze inklusibo eta orekatua lortzeko euskarriak.

El Sistema Educativo Vasco garantizará el desarrollo de mecanismos de garantía en el acceso y la admisión del alumnado, en tanto que instrumentos para la consecución de una escolarización inclusiva y equilibrada.

Euskal Hezkuntza Sistemak irakasle kualifikatu eta ahaldunduak izango ditu, eta prestigioa emango die irakasle-lanari eta haien aintzatespen sozialari, ikasteko modu berriak dituzten ikasleei erantzun eraginkorrak emate aldera. Eta ebaluazioaren kultura sendotuko du. Era berean, sormena, talentua, ekimen pertsonala eta espiritu ekintzailea eta kooperatiboa sustatuko dituen kultura zientifikoa eta humanitateak jasoko dituen hezkuntza-eredua lehenetsiko du.

El Sistema Educativo Vasco se dotará de un profesorado cualificado y empoderado, prestigiando la labor docente y su reconocimiento social, a fin de dar respuestas efectivas a un alumnado con nuevas formas de aprender. Y reforzará la cultura de la evaluación. Del mismo modo, priorizará un sistema educativo que incorpore la cultura científica y las humanidades, a fin de fomentar la creatividad, el talento, la iniciativa personal y el espíritu emprendedor y cooperativo.

## HEZKUNTZARAKO ETA BIZIKIDETZA POSITIBORAKO ESKUBIDEA

Oinarrizko giza eskubidea da hezkuntza eta berariaz aitortuta dago Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean (1948) zein nazioarteko beste arau-tresna askotan. 2030erako Munduko Hezkuntza Agendaren printzipio gidarietako bat da hezkuntzarako eskubidea, bai eta nazioarteko komunitateak onartutako 4. Garapen Iraunkorrerako Helburua (4. GIH) ere. Giza eskubideak oinarri hartuta, helburu hori formulatzen da izaera inklusiboa, ekitatiboa eta kalitatezkoa izan dezan, eta guztiontzat bizitza osoan ikasteko aukerak susta ditzan.

Euskal Hezkuntza Sistemak aukera-berdintasuna eta sarbide unibertsala bermatuko ditu, eta kalitatezko hezkuntza jasangarria lortzeko oinarriak ezarriko ditu. Eusko Jaurlaritzari dagokio guztientzako hezkuntza arrakastatsua ahalbidetzeko neurri politiko zein juridikoak betearaztea, baita sistemaren politika eta estrategien aplikazio eta jarraipen eraginkorrenak gauzatzea ere.

### Bizikidetza eta aniztasuna

Bizikidetza da etorkizuneko edozein proiektu jasangarriren ardatza. Hiru bizikidetza-maila ditugu: Gizarte plural eta askotariko bateko bizikidetza; hezkuntza-sareen arteko bizikidetza eta eskolako bizikidetza.

Euskal komunitateak eskola inklusiboaren alde egin duen apustuaren ondorioz, baliabide berariazkoak garatu dira. Esaterako, Europan eskola goiz uzten dutenen tasa txikienetako bat du Euskadik (% 6,5), eta goi-mailako hezkuntza duten ikasleen tasa handienetako bat (% 59,6). Era berean, eskolatze goiztiarreko tasarik altuena duen autonomia-erkidegoetako bat da: haurren % 92,3 bi urteko geletan eskolatuta daude, eta % 99 hiru urteko geletan.

## DERECHO A LA EDUCACIÓN Y A LA CONVIVENCIA POSITIVA

La educación es un derecho humano fundamental, y está expresamente reconocido en la Declaración Universal de Derechos Humanos (1948), al igual que en muchos otros instrumentos internacionales. El derecho a la educación es uno de los principios rectores que respalda la Agenda Mundial Educación 2030, al tiempo que constituye el Objetivo de Desarrollo Sostenible 4 (ODS 4), adoptado por la comunidad internacional y basado en los derechos humanos, formulado con propósito de garantizar una educación inclusiva, equitativa y de calidad y de fomentar oportunidades de aprendizaje a lo largo de la vida para el conjunto de la población.

El Sistema Educativo Vasco garantizará la igualdad de oportunidades y el acceso universal, y establecerá las bases para una educación sostenible y de calidad. Corresponde al Gobierno Vasco ejecutar las medidas políticas y jurídicas que posibiliten una educación exitosa para todos y todas, así como la aplicación y el seguimiento más eficaces de las políticas y estrategias del sistema.

### Convivencia y diversidad

La convivencia es el eje de cualquier proyecto sostenible de futuro. Distinguimos tres niveles de convivencia: la convivencia en una sociedad plural y diversa, la convivencia entre redes educativas y la convivencia escolar.

Como consecuencia de la apuesta de la comunidad educativa vasca por una escuela inclusiva, se han desarrollado recursos específicos. Así, Euskadi cuenta con una de las tasas más bajas de abandono escolar temprano de Europa (6,5 %), y una de las más altas tasas de alumnado con educación superior (59,6 %). Al mismo tiempo, es una de las comunidades autónomas con una tasa de escolarización temprana más alta: el 92,3 % de los niños y niñas están escolarizados en aulas para dos años de edad, y el 99 % para tres años.

Halere, gai honi ez zaio beti heldu beharrezkoa duen ikuspegi transbertsalez eta integralez. Arazo konplexu bat da, eskolak soilik ezin gainditu dezakeena, baina badira hezkuntza alorrean hobetu beharrekoak: ikasle etorkinak, gutxiengo etnikoetakoak, ikasteko zailtasunekin lotutako premiak dituztenak, gaitasun handikoak eta genero- edo sexu-bazterkeria arriskuan bizi direnak, besteak beste.

Sin embargo, no siempre se ha abordado esta cuestión desde el necesario punto de vista transversal e integral. Se trata de un problema complejo, que la escuela no puede superar por sí sola, pero en el ámbito educativo hay aspectos que mejorar: alumnado inmigrante, de minorías étnicas, con necesidades vinculadas a dificultades de aprendizaje, con altas capacidades y en riesgo de exclusión de género o de sexo, entre otras características.

Inklusioaren ikuspegi horretatik, Euskal Hezkuntza Sistemak ekitatea berresten du, eskolatze zabalaren eta baldintza-berdintasunaren bidez, bai eta jatorrizko desparekotasunak konpentsatzeko eta eskola-uzte goiztiarraren arriskua minimizatzeko neurriak hartzea ere.

Desde esta visión de inclusión, el Sistema Educativo Vasco se reafirma en la equidad mediante una escolarización amplia y en igualdad de condiciones, así como en la adopción de medidas que compensen las desigualdades de origen y minimicen el riesgo de fracaso y abandono escolar temprano.

Egungo eskolatze-eredua eraldatu eta ikasle kalteberen kontzentrazioak ekiditeko ezinbestekoa da barruti/eremu bakoitzean hezkuntza-proiektu integralak garatzea. Ildo horretan ezinbestekoak dira (i) eskola-mapa aztertu eta egokitzea, ekitateari eta errendimenduari erreparatuz; (ii) familien kontsulta- eta partaidetza-ereduak eraginkortzea (tokiko hezkuntza-kontseiluak tresna baliagarria izan daitezke), eta (iii) ikastetxeetako ikasleen arteko desorekak gainditzea, hezkuntza-kalitatea bideratzeko.

A fin de transformar el actual modelo de escolarización y evitar concentraciones de alumnado vulnerable, es imprescindible desarrollar proyectos educativos integrales en cada distrito/zona. En ese sentido, son imprescindibles (i) el análisis y la adecuación del mapa escolar en términos de equidad y rendimiento, (ii) la eficiencia de los modelos de consulta y participación de las familias (los consejos educativos locales pueden ser una herramienta útil), y (iii) la superación de las desigualdades entre el alumnado de los centros educativos en orden a procurar la calidad educativa.

Egungo euskal gizartea justizia eta kohesio sozialarekiko sentibera da oro har, euskara eta euskal kultura mundu globalean birkokatzeko beharra onartzen duena, berdintasuna eta elkarbizitzarako eredu partekatua bilatzen duena, eta prestakuntza-eskaera berriek planteatzen dituzten hezkuntza-erronkez jabetua dena.

La sociedad vasca actual es, en general, sensible a la justicia y la cohesión social, reconoce la necesidad de reposicionar el euskera y la cultura vasca en un mundo global, busca la igualdad y un modelo compartido de convivencia y es consciente de los retos educativos que plantean las nuevas demandas formativas.

Euskal Hezkuntza Sistemak sentiberatasun horiekin koherenteak diren egokitzapenak egiteko ardura bere gain hartuko du. Besteak beste, ikastetxe publikoetako eta itunpeko ikastetxe pribatuetako ikasleen onarpena arautuko da, hezkuntzarako eta sarbiderako eskubidea berdintasun-baldintzetan bermatzeko. Erregulazio horretan, ikasleak arrazoi sozioekonomikoengatik edo bestelakoengatik segregatzea saihesteko beharrezko diren neurriak ezarriko dira.

El Sistema Educativo Vasco asumirá la responsabilidad de realizar adaptaciones coherentes con esa sensibilidad social positiva. Entre otras, se regulará la admisión de alumnos y alumnas de centros públicos y privados concertados, de tal forma que garantice el derecho a la educación y el acceso en condiciones de igualdad. En dicha regulación se dispondrán las medidas necesarias para evitar la segregación del alumnado por motivos socioeconómicos o de otra naturaleza.

Eskola publikoek bermatzen dute ikasle guztiek hezkuntzarako eta prestakuntza integralerako eskubidea izango dutela, bereizketarik egin gabe, kalitate- eta berrikuntza-irizpideekin eta familien eta ikasleen parte-hartzearekin. Titulartasun pribatuko ikastetxeek itun-araubideari heldu ahal izango diote, legeak planteatzen dituen baldintzetan, eta hezkuntza-administrazioarekin lankidetza estua eta egiaztatua izan beharko dute (ISEC eta EKA... adierazleen bidez), ekitatea hobetzeko eta bikaintasuna bilatzeko planetan.

Los centros educativos públicos vascos garantizan el ejercicio efectivo del derecho a la educación y la formación integral de todo el alumnado sin distinción, con criterios de calidad e innovación y participación de las familias y estudiantes. Los centros de titularidad privada podrán acogerse al régimen de concierto en las condiciones que plantee la ley y deberán colaborar estrechamente y de forma contrastada (mediante indicadores ISEC e ICE…) con la Administración educativa en sus, planes de mejora de la equidad y búsqueda de la excelencia.

Euskara ardatz izango duen esparru eleaniztun orokortu baten aldeko apustua egiten dugu. Bi hizkuntza ofizialen eta atzerriko hizkuntza baten

Apostamos por un marco plurilingüe generalizado que tenga como eje el euskera. Defendemos un modelo inclusivo generalizado, que

ezagutza bermatuko duen eredu inklusibo orokortua defendatzen dugu, betiere ikasleen jatorrizko hizkuntzak eta kulturak aintzat hartuko dituena.

### Plangintza eta hezkuntza-sistemarako sarbidea

Eusko Jaurlaritzak, pertsona guztiek hezkuntza berdintasun baldintzetan jasotzeko duten eskubidea bermatze aldera, ikasleen onarpen-prozedura bakarra arautuko du, Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxeetan, baldin eta irakaskuntza hauetakoren bat ematen badute:

- Haur Hezkuntza.
- Lehen Hezkuntza.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.
- Batxilergoa.
- Oinarrizko Lanbide Heziketa.
- Erdi-mailako Lanbide Heziketa.
- Goi-mailako Lanbide Heziketa.
- Araubide bereziko irakaskuntzak (arte-irakaskuntzak, hizkuntzak, kirol-irakaskuntzak).

Euskal hezkuntzaren zerbitzu publikoa ikastetxe publiko eta itunpekoak medio emango da. Ikastetxeek bete beharreko baldintzak honako hauek izango dira:

- Curriculuma eta ebaluazioa. Lege berriak arlo horietan definituko dituen irizpideak errespetatuko dituzte. Eusko Jaurlaritzak ikastetxeen hizkuntza- eta hezkuntza-proiektuak ebaluatzeko mekanismoak ezarriko ditu, eta ikastetxeek parte hartuko dute beharrezkoa denean.
- Hizkuntza. Lege berriak definituko dituen helburuak erdietsiko dituzte beren ingurune soziolinguistikoak eskatzen duen neurrian. Hortaz, euskararen presentzia urriko ingurune soziolinguistikoetan ari diren ikastetxeei Hezkuntza Sailak berariazko baliabideak eskainiko dizkie beren hezkuntza-proiektuak garatu ditzaten. Ikastetxeek autoebaluaziorako tresnak izango dituzte. Euskara lehenetsi egingo da hezkuntza-sistemaren barruan, hezkuntza-jardueran zein harreman profesionaletan, baita ere ikasleen eta irakasleen arteko harreman formal eta ez-formaletan ere.
- Parekidetasuna. Euskal Hezkuntza Zerbitzuko ikastetxeetan ez da sexu-segregaziorik onartuko, eta ikastetxeek sexu- zein genero-askatasuna bermatzeko konpromisoa hartuko dute.

garantice el conocimiento de las dos lenguas oficiales y de una lengua extranjera, teniendo siempre en cuenta las lenguas y culturas de origen del alumnado.

### Planificación y acceso al sistema educativo

El Gobierno Vasco, con la finalidad de garantizar el derecho de todas las personas a acceder a la educación en condiciones de igualdad, regulará un procedimiento único de admisión del alumnado en los centros públicos dependientes del departamento de educación y en los centros concertados de la Comunidad Autónoma del País vasco, que impartan algunas de las siguientes enseñanzas:

- Educación Infantil.
- Educación Primaria.
- Educación Secundaria Obligatoria.
- Bachillerato.
- Formación Profesional de grado básico.
- Formación Profesional de grado medio.
- Formación Profesional de grado superior.
- Enseñanzas de régimen especial (enseñanzas artísticas, idiomas, deportivas).

La prestación del servicio público vasco de educación se realizará a través de los centros públicos y concertados. Los requisitos que han de cumplir los centros serán los siguientes:

- Currículo y evaluación. Respetarán los criterios que definirá la nueva ley en estas materias. El Gobierno Vasco establecerá mecanismos de evaluación de los proyectos lingüísticos y educativos de los centros, y éstos participarán cuando sea necesario.
- El idioma. Alcanzarán los objetivos que definirá la nueva ley en la medida que lo exija su entorno sociolingüístico. Por lo tanto, el Departamento de Educación facilitará recursos específicos a los centros que trabajan en entornos sociolingüísticos con escasa presencia del euskera para el desarrollo de sus proyectos educativos. Los centros dispondrán de herramientas de autoevaluación. Se priorizará el euskera dentro del sistema educativo, tanto en la actividad educativa como en las relaciones profesionales, así como en las relaciones formales e informales entre el alumnado y el profesorado.
- Paridad. En los centros educativos del Servicio Vasco de Educación no se permitirá la segregación sexual, y los centros se comprometerán a garantizar la libertad sexual y de género.

- Laikotasuna. Euskal Hezkuntza Sistema laikoa da. Lege organikoak ezarritako gutxienekoa izango da ikastetxeek Erlijio ikasgaiari eskaini diezaioketen gehienekoa eta doktrinamendurik ez dela izango bermatuko dute.

- Ikastetxeen gobernantza. Ikastetxeok hezkuntza-proiektuaren gidaritza demokratikoa bermatuko dute, hartarako hezkuntza-komunitatearen partaidetza demokratikoa ahalbidetuz.

- Hezkuntza-proiektu komunitarioak eta hezkuntza-eskaintzaren plangintza. Tokian tokiko hezkuntza-proiektuetan parte hartuko dute. Halaber, eskolaratze-eskaintzaren planifikazioa egiteko araututako tokiko organoetan parte hartuko dute.

- Segregazioaren kontrako konpromisoa: inklusioaren, ekitatearen eta aukera-berdintasunaren aldeko konpromisoa hartuko dute, eta hala jasoko da ikastetxe bakoitzaren hezkuntza-proiektuan. Hala, gerta daitezkeen segregazio-egoerei aurre egiteko, hezkuntza-administrazioak zein tokiko hezkuntza-kontseiluek zehaztutako neurriekin bat egingo dute.

- Kontratazioa. Administrazioaren jabetzakoak ez diren Euskal Hezkuntza Zerbitzuko ikastetxeek langileen kontratazio-prozesu garden eta demokratikoak garatuko dituzte eta horretarako bermeak ezarriko ditu hezkuntza-administrazioak.

- Ikastetxeetako azpiegiturak. ikastetxeen azpiegiturak dagokion titularrarenak dira. Horretaz gain, tokiko hezkuntza-kontseiluek adostutako bestelako erabilerak izan ahalko dituzte.

- Irabazi-asmorik eza. Irizpide horiek modu progresiboan betetzeko konpromisoak hartzen dituzten ikastetxeek finantzaketa publikoa jasoko dute, eta, ondorioz, Euskal Hezkuntza Zerbitzuko partaide izango dira.

Hezkuntza Sailak aldian-aldian zehaztuko du eskola-plazen eskaintza, gaineskaintza ekidinez, kontuan hartuta ikastetxe guztien eskaintza, bai eta aurrekontu-baliabideak ere.

### Doakotasunaren bermeak

Hezkuntzaren kalitateak baldintzatzen du arrakasta profesionalaren eta eraginkortasun ekonomikoa. Aukera-berdintasunetik hurbilen dagoen elementua da pertsona guztiei kalitatezko prestakuntza eskaintzea. Biztanleria osoaren ongizate-maila haren prestakuntza-sistemak funtzio hori ongi betetzean datza. Herri mailako plangintza, eskolaratze-prozedura bateratuak eta finantzaketa publikoa jasotzen duten

- La laicidad. El Sistema Educativo Vasco es laico. El mínimo establecido por la ley orgánica será el máximo que los centros puedan ofrecer a la asignatura de Religión y garantizarán que no haya adoctrinamiento.

- Gobernanza de los centros que garanticen el liderazgo democrático del proyecto educativo, posibilitando la participación democrática de la comunidad educativa.

- Proyectos educativos comunitarios y planificación de la oferta educativa. Participarán en proyectos educativos locales. Asimismo, participarán en los órganos locales regulados para la planificación de la oferta escolar.

- Compromiso contra la segregación: se comprometen con la inclusión, la equidad y la igualdad de oportunidades, y así se recogerá en el proyecto educativo de cada centro. Así, se sumarán a las medidas definidas tanto por la Administración educativa como por los consejos locales de educación, para hacer frente a posibles situaciones de segregación.

- Contratación. Los centros docentes del Servicio Vasco de Educación que no sean propiedad de la Administración desarrollarán procesos transparentes y democráticos de contratación de personal, y la Administración educativa establecerá garantías para ello.

- Infraestructuras de los centros. Las infraestructuras de los centros pertenecen al titular correspondiente. Además, los consejos educativos locales podrán tener otros usos acordados.

- La falta de ánimo de lucro. Los centros que se comprometan al cumplimiento progresivo de estos criterios recibirán financiación pública y, en consecuencia, formarán parte del Servicio Vasco de Educación.

El Departamento de Educación determinará periódicamente la oferta de plazas escolares, evitando la sobreoferta, teniendo en cuenta la oferta de la totalidad de los centros, así como las disponibilidades presupuestarias.

### Garantías de gratuidad

La calidad de la educación condiciona el éxito profesional y la eficiencia económica. Ofrecer una formación de calidad a todas las personas es un elemento estrechamente vinculado a la igualdad de oportunidades. El grado de bienestar del conjunto de la población radica en el buen desempeño de esa función por parte de su sistema de formación. La planificación local, los procedimientos integrados de

titulartasun ezberdineko ikastetxeetako ikasleen matrikulazioaren eta eskolaratzearen plangintza tresna egokiak izan daitezke helburuok lortzeko. Doakotasun erreala bermatuko du Eusko Jaurlaritzak, eskolaratze-kuotak desagerraraziz.

escolarización y la planificación de la matriculación y escolarización del alumnado de centros de distinta titularidad con financiación pública pueden ser instrumentos adecuados para alcanzar estos objetivos. El Gobierno Vasco garantizará la gratuidad real, eliminando las cuotas de escolarización.

Euskal Hezkuntza Sistemaren mugarria bikoitza da: ekitatea eta bikaintasuna bilatzen ditu. Ikuspegi horretatik pertsona guztiei prestakuntza-maila egokiak eskaintzea da eginkizunetako bat, eta bestea garapen intelektual handiagoa gara lezaketen ikasleei aukera guztiak eskaintzea, biak baitira ekitatearen alderdi biak.

El Sistema Educativo Vasco se propone fijar un doble hito: persigue la equidad y la excelencia. Desde este punto de vista, una de las funciones a cubrir consiste en ofrecer niveles de formación adecuados a todas las personas, y otra, en ofrecer todas las posibilidades al alumnado que podría desarrollar un mayor desarrollo intelectual, puesto que ambas funciones son facetas propias de la equidad.

Eskolako jarduera osagarriak eta zerbitzuak ere arautu egin behar dira, irabazi-asmorik gabekoak direla bermatuz araubide organikoan ezarritako baldintzetan eta ikasleen parte-hartzea borondatezkoa dela bermatuz. Era berean, laguntzen ezarpena arautuko du, egoera sozial edo ekonomiko ahuletan daudenek jarduera eta zerbitzu horiek eskura ditzaten.

Las actividades complementarias y los servicios escolares deben ser también regulados, garantizando su carácter no lucrativo en los términos establecidos en la regulación orgánica y la voluntariedad de la participación del alumnado. Asimismo, se regulará el establecimiento de ayudas para que quienes padezcan en situaciones sociales o económicas desfavorecidas puedan acceder a dichas actividades y servicios.

**Derrigorrezko eta doako irakaskuntzak**

**Enseñanzas obligatorias y gratuitas**

Eskolatzea derrigorrezkoa da 6 eta 16 urte bitartean, eta doakoa, gutxienez, Haur Hezkuntzako bigarren ziklotik aurrera (3 urte). Oinarrizko Lanbide Heziketa ere doakoa izango da. Hezkuntza-administrazioak ziurtatu behar ditu derrigorrezko irakaskuntzen eta doakotzat jotako irakaskuntzen doakotasuna gauzatzeko baliabide publikoak.

La escolarización es obligatoria entre los 6 y 16 años de edad, y gratuita, al menos a partir del segundo ciclo de Educación Infantil (3 años). La Formación Profesional de grado básico tendrá carácter gratuito. La Administración educativa debe asegurar los recursos públicos para hacer efectiva la gratuidad de las enseñanzas obligatorias y de las declaradas gratuitas.

Finantzaketa publikoa jasotzen duten ikastetxeek bete beharreko irizpideak zehaztu eta haien inguruko jarraipena egingo du Eusko Jaurlaritzak, eta hezkuntza-zerbitzua ematen dutenen betebeharrak eta onarpen-prozedura arautuko ditu. Ikastetxe publikoen kasuan, Administrazioak zuzenean eta ezarritako esparruan hala nahi duten titulartasun pribatuko ikastetxeetako itun-sistemaren bidez beteko dira ikastetxeen oinarrizko hezkuntza-premiak. Ikasleen premiak % 100ean finantzatuko dira, eta, ekitate-irizpideen arabera jardungo da, beken eta laguntza publikoen politika baten bidez, gizarte-baldintza zailenetan daudenei laguntza handiagoa emateko.

El Gobierno Vasco determinará y realizará el seguimiento de los criterios a cumplir por los centros que reciban financiación pública, y regulará las obligaciones y el procedimiento de admisión de los prestadores del servicio educativo. Las necesidades educativas básicas de los centros se cubrirán, en el caso de los centros educativos públicos, directamente por la Administración, y mediante el sistema de conciertos, en los centros educativos de titularidad privada que lo deseen en el marco establecido. Las necesidades del alumnado se financiarán al 100 % y, según criterios de equidad, mediante una política de becas y ayudas públicas, que procurará una mayor ayuda a quienes se hallen en condiciones sociales más difíciles.

Funtsezko etapa da Haur Hezkuntza haurren garapen psikomotorrerako, beren sozializaziorako eta euskara barneratzeko, besteak beste. Hori dela eta, ikas-etapa honi, aitortza berezia egiten diogu, haurren garapenean eta autonomian duen balioagatik. Hori horrela, ikas-etapa hau derrigorrezkoa ez bada ere, eskaintza unibertsalekoa, kalitatezkoa, bideragarria eta doakoa izango da. Horretarako, Haurreskolak Partzuergoa berrindartuko da, eskaintza unibertsaleko, kalitatezko eta doako zerbitzu publiko bilakatu dadin.

La Educación Infantil es una etapa clave para el desarrollo psicomotor de los niños y niñas, su socialización y la interiorización del euskera, entre otros aspectos. Por ello, hacemos un reconocimiento especial a esta etapa de aprendizaje, por su valor en el desarrollo y autonomía de los niños y niñas. Así, aunque esta etapa no sea obligatoria, tendrá una oferta universal, de calidad, viable y gratuita. Para ello, se reforzará el Consorcio Haurreskolak, para convertirlo en un servicio público de oferta universal, de calidad y gratuito.

Arreta goiztiarra bertan txertatuko da, eta horrela, premia bereziak dituzten ikasleen beharrak modurik egokienean asetzeko neurriak hartuko dira.

Hezkuntza-administrazioak bere ohiko plangintza beharrei erantzunez garatuko du ikastetxeen publifikazioa ahalbidetu dezaken araubidea.

La atención temprana se integrará en ella, adoptando las medidas necesarias para satisfacer, de la forma más adecuada, las necesidades del alumnado con necesidades especiales.

La Administración educativa desarrollará el régimen que permita la publificación de los centros atendiendo a sus necesidades ordinarias de planificación.

## LIDERGO BERRIAK ETA GOBERNANTZA-EREDUAK

Ikasleak ikaskuntzaren subjektu aktibo gisa ahalduntzeak lidergoen eta gobernantza-ereduen ikuspegi eraldatzailea dakar berekin, bai hezkuntza-prozesuaren barruan, bai eskola-antolamenduan, bai Euskal Hezkuntza Sistema osoan.

Aldi berean, hezkuntza-komunitatearen konplizitatea eta konpromisoa bilatuko da, betiere sistema hobetu eta ikasle guztien hezkuntza-arrakasta ziurtatzeko. Horrek denei eskatzen die egiteko moduen gaineko gogoeta, bakarkako moduetatik lidergo orekatu eta komunitariora igarotzeko.

Eskola-antolamenduan, arrakasta-faktore erabakigarria da zuzendaritza-taldea, hezkuntza-komunitate osoaren lankidetzako praktikak sustatzeko. Horretarako, zuzendaritza-taldeak hautatu, prestatu eta aitortzeko prozedura berariazko bati ekingo zaio, proiektu kooperatiboak asmatzeko eta hainbat arlotan proposamenak egiteko topaguneak sortuz.

## NUEVOS LIDERAZGOS Y MODELOS DE GOBERNANZA

El empoderamiento del alumnado como sujeto activo del aprendizaje conlleva una visión transformadora de los liderazgos y de los modelos de gobernanza tanto en la organización escolar como en el conjunto del Sistema Educativo Vasco.

Al mismo tiempo, se buscará la complicidad y el compromiso de la comunidad educativa, para mejorar el sistema y asegurar el éxito educativo de todo el alumnado. Esto invita a todos a reflexionar sobre las formas de hacer, para transitar de las formas individuales a un liderazgo equilibrado y comunitario.

En la organización escolar, el equipo de dirección constituye un factor de éxito determinante, de cara a la promoción de prácticas colaborativas en el conjunto de la comunidad educativa. En consecuencia, es necesario poner en marcha un procedimiento específico de selección, formación y reconocimiento de los equipos directivos, creando espacios de encuentro para idear proyectos cooperativos y elaborar propuestas en diferentes áreas.

### Hezkuntza-komunitatea

Hezkuntza-proiektuen aniztasunak dakarren aberastasunak biltzen ditu ikastetxeak, elkarrengandik ikasiz proiektu oro ikasle eta familien errealitatera egokitzeko eta gardentasunez eta kontuak emanez, hezkuntzarako ikuspegi berriztatzailea delarik jomuga. Ardatza ikaslea izanik, ikasle bakoitza bere gaitasunaren gehiengora iristen dela bermatzea da helburua. Ikaslea sostengatu eta egunero hezteko prozesu honetan, laguntzaile izango dira, eskolaz gain, familiak eta eragile soziokulturalak.

Komunitate osoak barneratu behar ditu hezkuntza-eragileek dituzten ezaugarriak (mehatxuak zein aukerak):

- **Etengabeko aldaketa eta ziurgabetasuna**

  (i) aurrerapen zientifiko eta teknologikoak;

  (ii) dilema moral berriak;

  (iii) aldaketak harremanetan, lanean, ekonomian eta ohituretan;

### La comunidad educativa

El centro educativo recoge las riquezas derivadas de la diversidad de proyectos educativos, aprendiendo unos de otros para adecuar todo proyecto a la realidad del alumnado y de las familias, con transparencia y rendición de cuentas, con un enfoque innovador desde el punto de vista de la educación. Se trata de garantizar que, situado el eje en el alumnado, cada alumno alcance el más alto grado en su competencia. En ese proceso de apoyo y educación diaria del alumnado colaborarán, además de la escuela, las familias y los agentes socioculturales.

La comunidad en su conjunto debe interiorizar las características (amenazas y oportunidades) de los agentes educativos:

- **Cambios continuos e incertidumbres**

  (i) avances científicos y tecnológicos;

  (ii) nuevos dilemas morales;

  (iii) cambios en las relaciones, trabajo, economía y costumbres;

(iv) intoxikazioa eta manipulazioa.

- **Globalizazioa**

(i) norbanakoaren izaera, kultura eta hizkuntza;

(ii) kultura anitzetik kulturartekotasuneko trantsizioa;

(iii) eleaniztasuna;

(iv) lankidetzan aritzea/lehiatzea;

(v) pentsamendu kritikoa;

(vi) informazio fidagarriaren hautaketa.

- **Digitalizazioa**

(i) konektibitatea;

(ii) gailuak/tresnak;

(iii) eten digitalak;

(iv) plataformak;

(v) ikaskuntza, ahalduntze eta partaidetzarako teknologiak.

- **Klima-aldaketa**

(i) migrazio-mugimenduak;

(ii) jasangarritasuna;

(iii) zaurgarritasun berriak;

(iv) ondasun komunaren ekonomia zirkularra;

(v) erantzukizuna eta inguruaren zaintza.

**Ikastetxeetako zuzendaritzen ahalduntzea eta lidergo pedagogikoa**

Legeak eskola-zuzendaritzarako eredu propio baten aldeko apustua egiten du eta zuzendaritza-eginkizuna betetzeko profil egokiak eta motibatuak identifikatuko ditu. Eredu horrek berekin dakar (i) kudeaketan eta lidergoan prestakuntza integrala eta espezializatua izatea; (ii) eskola-zuzendaritzei laguntzeko eredua, administrazioko langileen errefortzuaren bidez zuzendaritzaren zeregin burokratikoak murriztuz. Hartara, zuzendaritzak arreta jarri ahal izango du alderdi pedagogikoetan, talde-harremanetan, irakasleen antolaketan eta egungo hobekuntza- eta bikaintasun-plan propioen sustapenean.

Zuzendaritza sendo bat behar du ikastetxe orok eskola-komunitatea estrategia irmo batez gidatuko

(iv) intoxicación y manipulación.

- **Globalización**

(i) naturaleza, cultura y lengua del individuo;

(ii) transición de la multiculturalidad a la interculturalidad;

(iii) plurilingüismo;

(iv) cooperación/competencia;

(v) pensamiento crítico;

(vi) selección de información fiable.

- **Digitalización**

(i) conectividad;

(ii) dispositivos/herramientas;

(iii) interrupciones digitales;

(iv) plataformas;

(v) tecnologías para el aprendizaje, el empoderamiento y la participación.

- **Cambio climático**

(i) movimientos migratorios;

(ii) sostenibilidad;

(iii) nuevas vulnerabilidades;

(iv) economía circular del patrimonio común;

(v) responsabilidad y cuidado del entorno.

**Empoderamiento y liderazgo pedagógico de las direcciones de los centros**

La ley apuesta por un modelo propio de dirección escolar, e identificará perfiles adecuados y motivados para el ejercicio de la función directiva. Este modelo implica (i) una formación integral y especializada en gestión y liderazgo; (ii) un modelo de apoyo a las direcciones escolares, reduciendo las tareas burocráticas de la dirección mediante el refuerzo del personal administrativo. De esta forma, la dirección podrá centrarse en los aspectos pedagógicos, relaciones grupales, organización del profesorado, así como en el impulso de los actuales planes propios de mejora y excelencia.

Todo centro precisa una dirección sólida, que lidere a la comunidad escolar con una estrategia

duena, erabakiak hartzeko autonomia izango duena eta lortu beharreko emaitzekiko erantzukizuna bere gain hartuko duena. Bi dira gakoak: autonomia eta eskumenak, hau da, egiteko aukerak eta ebaluatzeko gaitasuna.

Zuzendari eta zuzendaritza-talde profesionalei goi-mailako eskakizunak egokitzen zaizkie:

- eremu kurrikularrari dagozkion heziketa eta lege-esparruak ezagutu eta bere testuinguruan garatzeko gaitasuna;
- baliabideen kudeaketa etengabe hobetzeko ezaguera eta hezkuntza-komunitateak eskaintzen dituen aukerak saretzeko gaitasuna;
- elkarbizitzarako giroa etengabe sortu eta hobetzeko gaitasuna;
- kudeaketa bizia eragiteko gaitasuna, norbere ardurako ikastetxean eta ingurukoekin elkarlanean.

Horrek eskatzen du (i) errendimendu handiko prestakuntza berezitua; (ii) profil horretako zuzendaritza-erantzukizunek dakarten maila pertsonaleko zein taldeko baliabide nahikoak; (iii) erantzukizun eta eskaera horiek eskatzen duten neurriko irabazi ekonomikoak eta errekonozimendu soziala.

**Ikastetxeen lankidetza-gobernantza**

Legeak aurreikusten duen lankidetza-gobernantzak eskola-komunitate osoa ordezkatuko duen organo bat eskatzen du, plan estrategikoari eta urteko planari buruz erabakiko duena, kudeaketa eta emaitzak ebaluatuko dituena eta erantzukizuna, inplikazioa, berrikuntza, gardentasuna eta kontuak ematea erabiliko dituena.

Ebaluazioa sistematizatu beharra dago, hobetzeko tresna gisa onartuz eta elkarri kritika konstruktiboak egiten ikasiz, irakasleak erdigunean dituzten ikasleen gaitasun eta zailtasunak zehazteko, lehenengoak potentziatzeko eta bigarrenetan laguntzeko.

**Programa-kontratua**

Lau urtean behin, Eusko Jaurlaritzak plan estrategiko bat egingo du, ekitatea eta hezkuntza-bikaintasuna areagotzeko lan-ildo nagusiak zehazteko. Plan hori Legebiltzarrean aurkeztuko da, edukiak ezagutu, ekarpenak egiteko eta eztabaidatzeko. Euskal ikastetxe publikoek ez ezik, titulartasun pribatuko ikastetxeek ere, ahalegin horretan modu kontrastatuan laguntzen badute, urte anitzeko programa-kontratu espezifikoak izenpetu ahal izango dituzte, hark ezarritako baldintzetan.

sólida y autonomía en la toma de decisiones, y que asuma la responsabilidad por los resultados a obtener. Dos son las claves: autonomía y competencias, es decir, posibilidades de realización y capacidad de evaluación.

A los directores y equipos directivos profesionales les corresponden requisitos de alto nivel:

- capacidad de conocer y desarrollar en su contexto los marcos educativos y legales correspondientes al ámbito curricular;
- conocimiento para la mejora continua de la gestión de los recursos y capacidad de socializar las oportunidades que ofrece la comunidad educativa;
- capacidad de crear y mejorar permanentemente el clima de convivencia;
- capacidad de llevar a cabo una gestión dinámica en el centro educativo de su responsabilidad, en colaboración con las personas de su entorno.

Esto requiere (i) formación especializada de alto rendimiento; (ii) recursos suficientes, tanto a nivel personal como colectivo, en coherencia con las responsabilidades directivas de este perfil; (iii) compensación económica y reconocimiento social en consonancia con tales responsabilidades y requerimientos.

**Gobernanza colaborativa de centros educativos**

La gobernanza colaborativa prevista por la ley requiere un órgano que represente al conjunto de la comunidad escolar, que decida sobre su plan estratégico y su plan anual, y que evalúe la gestión y los resultados con arreglo a los principios de responsabilidad, implicación, innovación, transparencia y rendición de cuentas.

Es preciso sistematizar la evaluación, asumiéndola como instrumento de mejora y aprendiendo a realizar críticas constructivas mutuas, para determinar las capacidades y dificultades del alumnado, en cuyo centro se ubica el profesorado, a fin de potenciar las primeras y ayudar en las segundas.

**Contrato-programa**

Cada cuatro años, el Gobierno aprobará un plan estratégico que defina las principales líneas de trabajo para incrementar la equidad y la excelencia educativa. Ese plan será presentado en el Parlamento, para su conocimiento, recabar aportaciones y debate. Además de los centros educativos públicos vascos, los centros de titularidad privada que colaboren de forma contrastada con dicho esfuerzo podrán suscribir contratos programa específicos de carácter plurianual en las condiciones que se establezcan.

Programa-kontratua plan horretako gidalerroak gauzatzen laguntzeko tresna juridikoa, ekonomikoa, finantzarioa da, eta plangintza estrategikorako tresna ere bai. Bertan, programan sartzeko baldintzak, esleitutako aurrekontua, ikastetxeari esleitzen zaizkion baliabide teknologikoak eta pertsonalak eta ebaluazioaren emaitzen kudeaketa-adierazleak zehazten dira. Hezkuntza-administrazioak, halaber, beste erakunde publiko batzuekin programa-kontratu batzuk egin ahal izango ditu, plan estrategikoaren helburuak lortzen laguntzeko.

El contrato-programa es el instrumento jurídico, económico, financiero y de planificación estratégica para facilitar la ejecución de las directrices de dicho Plan. En él, se detallan las condiciones de acceso al programa, el presupuesto asignado, los recursos tecnológicos y personales que se asignan al centro y los indicadores de gestión de los resultados de evaluación. La Administración educativa podrá asimismo concretar otros contratos programa con otras entidades públicas para coadyuvar en la consecución de los objetivos del plan estratégico.

**Administrazioen arteko hezkuntza-kogobernantza**

Hezkuntza-komunitateak ikas/irakas prozesuetan esku hartzen duten erakundeen inplikazioa eta elkarlana bultzatuko ditu. Udalek bereziki eginkizun sakona hartu dezakete matrikulazio-prozesuan, onarpen protokoloak familiengana hurbiltzeko, azpiegiturak indartzeko, elkarbizitza sustatzeko, kohesioa bultzatzeko sareak sortu edota elikatzeko, euskararen erabilera sustatzeko eta, azken batean, eskola-komunitatea sendotzeko.

**Cogobernanza educativa entre administraciones**

La comunidad educativa impulsará la implicación y colaboración de las instituciones que intervengan en los procesos de enseñanza-aprendizaje. Los ayuntamientos pueden, señaladamente, asumir un papel importante en el proceso de matriculación, acercar a las familias los protocolos de admisión, reforzar las infraestructuras, fomentar la convivencia, crear y/o alimentar redes de cohesión, fomentar el uso del euskera y, en definitiva, fortalecer la comunidad escolar.

**Gizarte- eta hezkuntza-programak: administrazioen erantzunkidetasuna**

Legeak aurreikusiko du ikastetxeek gizarte- eta hezkuntza-arloko eta aisialdiko planak eta programen sustapena, tokiko baliabideen kudeaketan modu positiboan eragiteko, bizikidetza hobetzeko eta ikasle guztien inklusioa eta arrakasta sustatzeko. Jaurlaritzari dagokio, bere eskumenen esparruan, akordio horiek udalekin eta foru-aldundiekin arautu eta formalizatuko dituen esparrua ezartzea.

**Programas socioeducativos: corresponsabilidad de las administraciones**

La ley preverá que los centros educativos promuevan planes y programas socioeducativos y de tiempo libre que incidan de manera positiva en la gestión de los recursos locales, mejoren la convivencia y promuevan una mejora en la inclusión y el éxito del conjunto del alumnado. Corresponderá al Gobierno, en el ejercicio de sus competencias, establecer el marco que regule y formalice dichos acuerdos con los ayuntamientos y las diputaciones forales.

**Tokiko hezkuntza-kontseiluak**

Familien, ikastetxeen eta udalerrien arteko benetako konpromisoa elikatzen duen giro kooperatiboa ezinbesteko lan-tresna da, jarrera profesional irekia eta eskuzabala erakusten duten heinean ikasleen onura dakartelako. Gogoan hartzeko hiru irizpide:

(i) ikaskuntzak denbora eta ahalegina eskatzen ditu;

(ii) bizikidetzak oinarrizko arau batzuk errespetatu behar ditu;

(iii) adingabeek helduen zaintza eta laguntza behar dute.

Izan ere, gero eta gehiago ari da hedatzen herritarrak hezteko ardura partekatua delako ideia. Premisa horretatik abiatzen gara, ulertzen baitugu eskolak eta gizarte-inguruak elkarreraginean jarduten dutela ; batak zein besteak elkarren beharra dute. Alegia, eskola gizartearen isla den modu berean da gizartea eskolek hezitako herritarren hartzaile zuzena.

**Consejos educativos locales**

El clima cooperativo que alimenta el compromiso real entre familias, centros y municipios constituye una herramienta de trabajo imprescindible, dado que, en la medida en que tales agentes muestren una actitud profesional abierta y generosa, contribuyen al beneficio del alumnado. Se deben tener en cuenta tres criterios:

(i) el aprendizaje requiere tiempo y esfuerzo;

(ii) la convivencia debe respetar unas normas básicas;

(iii) los menores necesitan el cuidado y la ayuda de los adultos.

De hecho, cada vez se extiende más ampliamente la idea de que educar a la ciudadanía es una responsabilidad compartida. Partimos de esa premisa, porque entendemos la escuela y el entorno social como dos ámbitos en los que ambas instancias interactúan; una y otra se necesitan mutuamente. Es decir, de la misma manera que la escuela es un reflejo

de la sociedad, la sociedad es receptora directa de la ciudadanía educada por la escuela.

Legeak tokiko hezkuntza-kontseiluak eratzea aurreikusten du (udal eskola kontseiluak), batetik, zenbait baliabide komunitario artikulatzeko ikasleen ongizatearen eta heziketaren mesedetan, eta, bestetik, hezkuntza-komunitate guztiaren partaidetzaren bidez, hezkuntza formalaren eta ez-formalaren arteko uztarketa sustatzeko.

La ley prevé la constitución de consejos locales de educación (consejos escolares municipales), con el propósito, por un lado, de articular una serie de recursos comunitarios en beneficio del bienestar y la educación del alumnado; por otro, para mediante la participación del conjunto de la comunidad educativa, de fomentar la conjunción entre educación formal y no formal.

Tokiko Eskola Kontseiluari kontsulta egingo zaio honako eduki edota jardunetan:

(i) hezkuntza-premiak identifikatzea, eskaintza banatzea eta ikasleak eskolatzeko irizpideak zehaztea, hiri-plangintzatik eratorritakoak barne;

(ii) hezkuntza-laguntzako behar espezifikoak dituzten ikasleen eskolatze egokia eta orekatua bermatzen laguntzeko jarduerak eta behar diren neurriak hartzea, ikasleak arrazoi sozioekonomikoengatik edo beste bestelakoengatik segregatzea saihesteko;

(iii) ikastetxeen funtzionamenduari eragiten dioten udal-jarduerak, eta

(iv) udalerria eremu duten patronatuak, partzuergoak eta hezkuntza-erakundeak eratzea.

Se consultará al Consejo Escolar Local respecto a los siguientes contenidos y/o actuaciones:

(i) identificación de las necesidades educativas, distribución de la oferta y determinación de los criterios de escolarización del alumnado, incluidos los derivados de la planificación urbana;

(ii) actuaciones y medidas necesarias para contribuir a garantizar una idónea y equilibrada escolarización del alumnado con necesidades específicas de apoyo educativo, a fin evitar la segregación del alumnado por razones socioeconómicas o de otra naturaleza;

(iii) actuaciones municipales que afecten al funcionamiento de los centros escolares, y

(iv) constitución de patronatos, consorcios e instituciones educativas cuyo ámbito sea el municipio.

**Euskadiko Eskola Kontseilua**

Hezkuntza-komunitateak unibertsitatez kanpoko irakaskuntzaren programazio orokorrean parte hartzen duen organo gorena da. Gainera, kontsulta- eta aholkularitza-organotzat du Eusko Jaurlaritzak hezkuntzaren arloan proposatu edo emandako arau-dokumentuak lantzerakoan. Hezkuntza arloko gobernantza kolaboratiboan parte hartuko du.

Euskadiko Eskola Kontseilua eraberritu egingo da, lege berriaren printzipio eta helburu nagusiekin koherentzian.

Bertan, ikastetxeek zein tokiko hezkuntza-kontseiluek, hezkuntza- eta gizarte-eragileek ordezkaritza izango dute. Bere eginkizun nagusiak honako hauek izango dira:

(i) udal zein ikastetxeetako kontseiluekin sinergiak sustatzea,

(ii) ikasleek zein ikastetxeek parte har dezaten erraztea,

(iii) (urteroko) txostenaren proposamenak hurbiltzea,

**Consejo Escolar de Euskadi**

Es el órgano superior de participación de la comunidad educativa en la programación general de la enseñanza no universitaria. Es, además, órgano de consulta y asesoramiento del Gobierno Vasco respecto a los documentos normativos propuestos o emitidos en materia educativa. Participará en la gobernanza colaborativa en materia educativa.

El Consejo Escolar de Euskadi será reformado, en coherencia con los principios y objetivos generales de la nueva ley.

Contará con una representación de los centros escolares, de los consejos educativos locales y de los agentes sociales. Sus principales funciones serán:

(i) promover sinergias con los consejos de ayuntamientos y centros,

(ii) facilitar la participación del alumnado en el centro,

(iii) acercar las propuestas del informe (anual),

(iv) Hezkuntza Sailarekiko harremana eta Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordeari kontu-ematea sistematizatzea.

Halere, lege berri honek ikasle eta ikastetxe ahaldunduak dituenez gune eta eremu nagusitzat, horren arabera eraldatuko dira euskal hezkuntzaren organo eta azpiegitura guztiak; bai eta Euskadiko Eskola Kontseilua ere. Hori horrela, legea onartzen denetik bi urtera aurkeztuko ditu Legebiltzarrean bere helburuak, funtzioak eta konpromisoak.

Euskadiko Eskola Kontseiluak lekua egin diezaioke guraso-elkarte edo -federazio txikien ordezkaritzari ere.

**Euskal Eskola Publikoaren Kontseilua**

Euskal Eskola Publikoaren Kontseilua partaidetzarako erakunde gisa eratuko da. Gaitasun eta autonomia nahikoa izango du bere beharrak eta interesak identifikatu eta garatzeko, ikastetxe publikoen lana eta hezkuntza-lorpenak ikusarazteko, ingurunean integratzeko eta ikastetxeen arteko lankidetza-lana bultzatzeko, bere nortasunaz jabetzeko eta kalitate eta ezagutzaren aldetik erreferentea izango den euskal eskola publikoa bultzatzeko. Bereziki indarra egingo da euskal eskola publikoko ikasleen, familien eta profesionalen parte-hartzea sustatzeko.

Euskal Eskola Publikoaren Kontseiluak, urte anitzeko plan estrategikoen bidez, ikastetxe publikoen arteko elkarlana sustatuko du, eta jardunbide egokiak transmititzeko sareak sortuko ditu.

Era berean, gizartea ikastetxe publikoen alde aktiboki inplikatzen duten kanpainak bultzatuko ditu.

Kontseiluaren eginkizuna izango da eskola publikoaren solaskide izatea, botere publikoei gomendioak egitea, ikastetxe publikoak beren ingurunean integratzen laguntzea, bai eta eskolaren, enpresaren eta unibertsitatearen artean harremanak ezartzea, edo hezkuntza-administrazioak udalekin hitzarmenak egitea ere, elkarrekiko erabilgarritasuneko prestazioak errazteko, hala nola, liburutegiak, parkeak, kirol-instalazioak…

Lege berria onartzen denetik gehienez urtebetera eratuko den Euskal Eskola Publikoaren Kontseiluak plan estrategikoa garatzeko euskal eskola publikoak izan behar duen proiektuak beharrezko dituen bitartekoak identifikatzeko, garatzeko eta aktibatzeko neurriak hartuko ditu.

**IKASLE ELEANIZTUNAK HELBURU: HIZKUNTZEN ERABILERA ETA IKASKUNTZA**

Euskal Hezkuntza Sistemak proiektu eleaniztun batean inbertituko du, dimentsio guztietan: irakasleak

(iv) sistematizar la relación con el Departamento de Educación y la rendición de cuentas en la Comisión de Educación del Parlamento.

No obstante, dado que esta nueva ley tiene como principales espacios y ámbitos al alumnado y a los centros empoderados, se transformarán en consecuencia todos los órganos e infraestructuras de la educación vasca, así como el Consejo Escolar de Euskadi. Así, presentará ante el Parlamento sus objetivos, funciones y compromisos a los dos años de su aprobación.

El Consejo Escolar de Euskadi podrá contar con una representación de las pequeñas asociaciones o federaciones de padres y madres.

**Consejo de la Escuela Pública Vasca**

El Consejo de la Escuela Pública Vasca se constituirá como ente de participación. Tendrá capacidad y autonomía suficiente para identificar y desarrollar sus necesidades e intereses, visibilizar el trabajo y los logros educativos de los centros públicos, propiciar su integración en el entorno e impulsar el trabajo de colaboración entre los centros, tomar conciencia de su personalidad propia e impulsar una escuela pública vasca referente en calidad y conocimiento. Se hará especial hincapié en fomentar la participación del alumnado, familias y profesionales de la escuela pública vasca.

El Consejo de la Escuela Pública Vasca, a través de sus planes estratégicos plurianuales, promoverá la colaboración entre centros públicos, y creará redes de transmisión de buenas prácticas.

Asimismo, impulsará campañas que impliquen activamente a la sociedad en defensa de los centros públicos.

Será función del consejo ejercer de interlocutor de la escuela pública, efectuar recomendaciones a los poderes públicos, propiciar la integración de los centros públicos en su entorno, así como establecer relaciones entre la escuela, la empresa y la Universidad, o impulsar convenios de la Administración educativa con los ayuntamientos, para facilitar prestaciones de utilidad recíproca, como bibliotecas, parques, instalaciones deportivas…

El Consejo de la Escuela Pública Vasca, que se constituirá a más tardar un año después de la aprobación de la nueva ley, adoptará las medidas necesarias para identificar, desarrollar y activar los medios necesarios para el desarrollo del plan estratégico, el proyecto que debe contar con la escuela pública vasca.

**POR UN ALUMNADO PLURILINGÜE: USO Y APRENDIZAJE DE LAS LENGUAS**

El Sistema Educativo Vasco invertirá en un proyecto plurilingüe en todas sus dimensiones:

eta ikasleak inplikatuko ditu, komunikazio eraginkorrerako gaitasunak garatu ditzaten.

Hezkuntza-proiektu eleaniztunen alde egiten dugu, euskara ardatz hartuta, gure bi hizkuntza ofizialen eta, gutxienez, atzerriko hizkuntza baten irakaskuntza eraginkorra sustatzeko, eta, era berean, ikasleen beste hizkuntza batzuen ikusgarritasuna bultzatzeko. Hori guztia ikastetxe bakoitzaren hizkuntza-proiektuan egituratu behar da, esparru komun baten barruan. Hiru hizkuntzen tratamendu integratua emango da, haien funtzioa eta egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta.

Hezkuntza da ardatz nagusia egoera gutxituan dagoen edozein hizkuntzaren berreskurapenerako, belaunaldi berriek gaitasun egokia lor dezaten bermatzen duelako eta gizarte-kohesiorako giltzarria ere badelako. Helburua argia da: ikasle guztiek gaitasun komunikatiboa izatea ofizialak diren bi hizkuntzetan, egoera errealera egokituta. Euskararen erabilera errazteko, eskola-komunitatea motibatzeko eta ikasleen arteko harremanetan euskararen erabilera indartzeko neurriak hartuko dira.

Euskararen Aholku Batzordeak aho batez onartutako zenbait proposamen jasoko ditu legeak, euskarari buruzko diskurtso partekatua sortzeko eta euskararen aldeko giro egokia indartzeko, Lanbide Heziketan eta hezkuntza ez-formalean euskararen presentziaren jauzi kuantitatiboa eta kualitatiboa bultzatzeko, hezkuntzako profesionalen komunikazio-gaitasuna hobetzeko eta hizkuntzen ikaskuntza eta erabilera bideratzeko modu berriak ikertzeko eta garatzeko.

Norberaren zein kanpoko ebaluazioen emaitzek eta gizarte-aldaketek hizkuntzen irakaskuntzan beharrezko egiten dituzten aldaketa metodologikoei ekingo zaie ikasleen gaitasun guztiak hobetzeko.

**Euskal Hezkuntza Sistemaren esparru eleaniztuna eta kulturartekoa**

Legeak hezkuntza eleaniztunaren eta kulturen arteko hezkuntzaren alde egingo du, hizkuntza- eta kultura-kontzientzia zabala sustatzeko, bi hizkuntza ofizialen eta, gutxienez, atzerriko hizkuntza baten bidez artikulatua, gizarte-kohesioa eta herritarrek bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko duten gaitasuna bermatzeko. Hori dela eta, ikasle guztiek, familia-jatorria edozein dela ere, derrigorrezko hezkuntza amaitzean, Euskadiko bi hizkuntza ofizialak ezagutzea eta, gutxienez, atzerriko hizkuntza baten ezagutza izatea ahalbidetzearen aldeko apustua egiten da.

Horiek guztiek ikaskuntzak bideratuko dituzte, eraginkortasuna areagotzeko.

implicará al profesorado y al alumnado, de forma que ambos desarrollen capacidades para una comunicación eficaz.

Apostamos por proyectos educativos plurilingües, con el euskera como eje, que promuevan una enseñanza efectiva de nuestras dos lenguas oficiales y, al menos, una lengua extranjera, y que propicien asimismo la visibilidad de otras lenguas del alumnado. Todo ello se debe estructurar en el proyecto lingüístico de cada centro, dentro de un marco común. Se dará un tratamiento integrado de las tres lenguas, teniendo en cuenta su función y su situación sociolingüística.

La educación es el eje central para la recuperación de cualquier lengua en situación minorizada, puesto que garantiza que las nuevas generaciones adquieran una competencia adecuada, y es, al tiempo, clave para la cohesión social. El objetivo es que la totalidad del alumnado adquiera capacidad comunicativa en ambas lenguas oficiales, adaptada a la situación real. Se adoptarán medidas que faciliten el uso del euskera, estimulen la motivación de la comunidad escolar o refuercen el uso del euskera en la relación entre el alumnado.

La ley recogerá algunas de las propuestas aprobadas por el Consejo Asesor del Euskara con el propósito de generar un discurso compartido sobre el euskera y de fortalecer el ambiente propicio en torno a dicha lengua, de impulsar un salto cuantitativo y cualitativo en la presencia del euskera en la Formación Profesional y en la educación no formal, de mejorar la capacidad comunicativa de los profesionales de la educación y de investigar y desarrollar nuevas formas de enfocar el aprendizaje de las lenguas y su uso.

Se abordarán los cambios metodológicos que los resultados de las evaluaciones, tanto propias como externas, y los cambios sociales hagan necesarios en la enseñanza de las lenguas, a fin de mejorar todas las competencias del alumnado.

**El marco plurilingüe e intercultural del Sistema Educativo Vasco**

La ley abogará por una educación plurilingüe e intercultural, con el objetivo de promover una conciencia lingüística y cultural amplia, articulada a través de dos lenguas oficiales y, al menos, una lengua extranjera, para garantizar la cohesión social y la capacidad de comunicación de la ciudadanía en ambas lenguas oficiales. Por ello, apuesta por hacer posible que la totalidad del alumnado, independientemente del origen familiar, conozca, al acabar la enseñanza obligatoria, las dos lenguas oficiales de Euskadi y tenga conocimientos, como mínimo, de una lengua extranjera.

Todas ellas vehicularán aprendizajes, para incrementar así su efectividad.

Ikasleek eskuratu beharreko hizkuntza gaitasun-mailei dagokienez, ezinbestekoa da horiek zehaztea, helburuak ezarri eta emaitzetan oinarritutako plangintzak diseinatu ahal izateko. Euskara ardatz nagusi duen sistema eleaniztuna proposatzen den neurrian, honako gaitasun-maila hauek ezarriko dira gutxieneko helmuga moduan: bi hizkuntza ofizialetan Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren B1 Lehen Hezkuntza amaitzerakoan eta B2 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzerakoan, Europako herrialdeetan ohikoa denez; atzerriko hizkuntzan, A2 eta B1 maila hurrenez hurren. Egindako ebaluazioetan ikusi da eskuratutako euskara-maila ez dela beti maila horretara heltzen eta horren arrazoiak aztertuko dira, ikastetxeak hobekuntzen bidez maila horietara heldu daitezen neurriak hartu daitezen. Hobetze bidean ikerketa eta berrikuntza ezinbestekoak dira, eta planak, epeak eta baliabideak zehazterakoan, ikastetxeen abiapuntuak eta tokian tokiko egoera soziolinguistikoak oso ezberdinak direla kontuan hartu beharko da.

En cuanto al nivel de competencia lingüística que debe adquirir el alumnado, tenemos que partir en primer lugar de su definición para, a continuación, poder establecer una serie de objetivos y diseñar planes basados en resultados. En la medida en que se proponga un sistema plurilingüe con el euskera como eje central, estableceremos como objetivo mínimo los siguientes niveles de competencia: alcanzar el nivel B1 del Marco Común Europeo de Referencia para las dos lenguas oficiales al finalizar la Educación Primaria y alcanzar el nivel B2 al finalizar la Educación Secundaria obligatoria; en cuanto a la lengua extranjera, los niveles A2 y B1, respectivamente. De las evaluaciones realizadas se desprende que el nivel de euskera adquirido no siempre alcanza los estándares deseados, por lo que se procederá a analizar los motivos para implementar mejoras y adoptar medidas que permitan a los centros alcanzar el nivel determinado. Para mejorar es imprescindible la investigación y la innovación, y a la hora de concretar planes, plazos y recursos habrá que tener en cuenta que el punto de partida y las situaciones sociolingüísticas de cada lugar son muy diferentes.

Legeak, euskara ardatz hartuta, hezkuntza eleaniztunaren alde egingo du proiektu integralen bidez, hizkuntza-ikaskuntzan eragin biderkatzailea sortzeko. Ildo horretan, Euskal Hezkuntza Sistemak apustu egiten du ikasle guztiek, familia-jatorria edozein dela ere, derrigorrezko hezkuntza amaitzean, Euskadiko bi hizkuntza ofizialetan hizkuntza-gaitasun egokia eta nahikoa izatea eta, gutxienez, atzerriko hizkuntza baten ezagutza izatea ahalbidetzearen alde.

La ley abogará por una educación plurilingüe, con el euskera como eje, mediante proyectos integrales, generando un efecto multiplicador en el aprendizaje lingüístico. En este sentido, el Sistema Educativo Vasco apuesta por hacer posible que la totalidad del alumnado, independientemente del origen familiar, al acabar la enseñanza obligatoria, tenga una competencia lingüística adecuada y suficiente en las dos lenguas oficiales de Euskadi, y tenga conocimientos, como mínimo, de una lengua extranjera.

Hiru hizkuntzen tratamendu integrala bultzatuko da, curriculum-plangintzatik zein curriculumetik kanpoko esparruan, hizkuntza horien funtzioa eta egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta. Horiek guztiek ikaskuntzak bideratuko dituzte, eraginkortasuna areagotzeko.

Se dará un tratamiento integrado de las tres lenguas, tanto desde la planificación curricular como extracurricular, teniendo en cuenta su función y su situación sociolingüística. Todas ellas vehicularán aprendizajes para incrementar así su efectividad.

Helburu horiek ikastetxe bakoitzaren hizkuntza-proiektuan egituratuko dira, legeak zehaztutako esparru komun baten barruan. Hizkuntza-proiektuaren jarraipena egingo da eta, hala badagokio, egokitu egingo da, hizkuntza-helburuak lortzea eta gainerako gaietan gaitasunak eskuratzea bermatzeko.

Estos objetivos se estructurarán en el proyecto lingüístico de cada centro, dentro de un marco común definido por la ley. El proyecto lingüístico será objeto de seguimiento y, en su caso, adaptación, para garantizar tanto el logro de los objetivos lingüísticos como la adquisición de competencias en el resto de las materias.

Hori guztia ikastetxe bakoitzaren hizkuntza-proiektuan egituratuko da esparru komun baten barruan:

- Helburua da ikasle guztiek komunikazio-gaitasuna eskuratzea bi hizkuntza ofizialetan, ikastetxe bakoitzaren benetako egoerara egokituta, abiapuntuko egoera kontuan hartuta eta bermatzea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzean, ikasleek gure bi hizkuntza ofizialen (euskara eta gaztelania) ezagutza praktiko nahikoa izango dutela, bai eta gutxienez atzerriko hizkuntza baten ezagutza

Todo ello se estructurará en el proyecto lingüístico de cada centro, dentro de un marco común:

- El objetivo es que la totalidad del alumnado adquiera capacidad comunicativa en ambas lenguas oficiales, adaptada a la situación real de cada centro educativo, teniendo en cuenta la situación de partida y garantizar al finalizar la Educación Secundaria Obligatoria, el conocimiento práctico suficiente de nuestras dos lenguas oficiales, euskera y castellano, por parte del alumnado, así como un conocimiento

nahikoa izango dutela ere, eta komunikazio-maila egokia izango dutela , hezkuntza-etapa hori amaitzean.

suficiente de, como mínimo, una lengua extranjera, con un nivel adecuado de comunicación al finalizar dicha etapa educativa.

- Hezkuntza eleaniztun eta kulturen arteko hezkuntzaren alde egingo da, hizkuntza- eta kultura-sentiberatasuna zabala sustatzeko.

- Se abogará por una educación plurilingüe e intercultural, con el objetivo de promover una conciencia lingüística y cultural amplia.

- Hiru hizkuntzen tratamendu integratua emango da, haien funtzioa eta egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta.

- Se dará un tratamiento integrado de las tres lenguas, teniendo en cuenta su función y su situación sociolingüística.

- Ikasleen gaitasun guztiak hobetzeko, beharrezko diren neurriak ezarriko dira hizkuntza-helburuak lortzen direla eta gainerako ikasgaietan konpetentziak eskuratzen direla bermatzeko, ingurune bakoitzaren abiapuntua eta ezaugarri soziolinguistikoak kontuan hartuta.

- Con el fin de mejorar las competencias del alumnado, se establecerán las medidas necesarias para garantizar el logro de los niveles lingüísticos y la adquisición de competencias en todas las materias, teniendo en cuenta el punto de partida y las características sociolingüísticas de cada entorno.

- Euskararen erabilera errazteko, eskola-komunitatea motibatzeko eta ikasleen arteko harremanetan euskararen erabilera indartzeko neurriak hartuko dira.

- Se adoptarán medidas que faciliten el uso del euskera, estimulen la motivación de la comunidad escolar y refuercen el uso del euskera en la relación entre el alumnado.

- Euskararen erabilera lehenetsiko eta sustatuko da jarduera-harremanetan eta profesionalen arteko harremanetan, bai eta ikasleen eta irakasleen arteko harreman formal eta ez-formaletan ere.

- Se primará y fomentará el uso del euskera en las relaciones de actividad y entre profesionales, así como en las relaciones formales y no formales entre el alumnado y profesorado.

- Irakasleen prestakuntzak hizkuntzen eta euskal kulturaren irakaskuntzako metodologiak hobetzea aurreikusiko du.

- La formación del profesorado contemplará la mejora en las metodologías de la enseñanza de las lenguas y la cultura vasca.

- Ikastetxeek hizkuntza-proiektu bat egingo dute beren hezkuntza-proiektuaren barruan, beren ikuspegi metodologikoa barne, ingurune soziolinguistikoa eta ikasleen profilak kontuan hartuta, hezkuntza-etapa bakoitzaren amaieran ikasleek beharrezko diren hizkuntza-mailak eta konpetentziak lor ditzaten. Ikaskuntza-prozesuan hizkuntzak irakasteko eta erabiltzeko irizpideak garatuko dira.

- Los centros educativos elaborarán un proyecto lingüístico como parte de su proyecto educativo, incluyendo su enfoque metodológico, teniendo en cuenta el entorno sociolingüístico y los perfiles del alumnado, de forma que, al final de cada etapa educativa, este haya adquirido los niveles lingüísticos y competencias necesarios. Se desarrollarán criterios para la enseñanza y el uso de las lenguas en el proceso de aprendizaje.

- Ikastetxeko hizkuntza-proiektuaren jarraipena eta ebaluazioa egin beharko da.

- Se deberá realizar un seguimiento y una evaluación del proyecto lingüístico de centro.

Ikastetxe bakoitzaren hizkuntza-proiektuan zehaztuko dira esandako puntu guztiak garatzeko ekintza eta neurri zehatzak, bai eta Hezkuntza Sailarekin batera horien guztien jarraipena egiteko proposaturiko adierazleak ere.

En el proyecto lingüístico de cada centro se detallarán las acciones y medidas concretas para desarrollar todas estas actuaciones, así como los indicadores propuestos para su seguimiento con el Departamento de Educación.

Euskal Hezkuntza Sistemak ikasleen gaitasun eleaniztuna garatuko du, hizkuntza guztien metodologia integratzaileen eta proiektu integralen bidez, eta eragin biderkatzailea sortuko du hizkuntza-ikaskuntzan. Hiru hizkuntzen tratamendu integratua emango da, curriculum-plangintzatik zein curriculumetik kanpokotik, hizkuntza horien funtzioa eta egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta.

El sistema educativo vasco desarrollará la capacidad plurilingüe del alumnado, mediante metodologías integradoras y proyectos integrales de todas las lenguas, generando un efecto multiplicador en el aprendizaje lingüístico. Se dará un tratamiento integrado de las tres lenguas, tanto desde la planificación curricular como extracurricular, teniendo en cuenta su función y su situación sociolingüística.

Hezkuntza-administrazioak bermatuko ditu ikasleen hizkuntza-eskubideak. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako batean zein bestean egon daitezkeen gabeziak konpentsatzeko neurri eraginkor batzuk bultzatuko ditu.

La Administración educativa garantizará los derechos lingüísticos del alumnado. Asimismo, impulsará la adopción de medidas eficaces para compensar posibles carencias en cualquiera de las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Gainera, ikastetxe bakoitzaren hezkuntza-proiektuek eta curriculum-proiektuek laguntza-neurriak aurreikusiko dituzte hizkuntza-arrazoiengatik ikasteko zailtasunak dituzten ikasleentzat, ikasgaiak berandu ikastea saihesteko.

Los proyectos educativos y curriculares de cada centro contemplarán medidas de apoyo para el alumnado con dificultades de aprendizaje por razones lingüísticas, de forma que se evite el aprendizaje tardío de las materias.

**Euskara, sistema eleaniztunaren ardatza**

Euskal Hezkuntza Sistemak euskararen ikaskuntzaren berme izan behar du, hizkuntza-proiektu integratuak abian jarriz. Helburua da ikasle euskaldun eleaniztunak lortzea, eta era berean eragile aktiboak izatea gizarte-kohesiorako gainerako hizkuntzak eta kulturak errespetatuz.

Hala ere, eta euskara gizarte-hizkuntza normalizatua izan dadin eskolaren esku-hartzea ezinbestekoa bada ere, ez da nahikoa, hezkuntza-komunitateko zein gizarteko beste eragile batzuk ere ezinbestekoak baitira.

**El euskera, eje vertebrador del sistema plurilingüe**

El Sistema Educativo Vasco debe ser garantía del aprendizaje del euskera, mediante la puesta en marcha de proyectos lingüísticos integrados. El objetivo es conseguir un alumnado euskaldún plurilingüe, que sea, al mismo tiempo, agente activo de cohesión social desde el respeto a las demás lenguas y culturas.

Sin embargo, si bien la intervención de la escuela es imprescindible para que el euskera sea una lengua socialmente normalizada, no es suficiente, dado que otros agentes de la comunidad educativa y de la sociedad son igualmente imprescindibles.

**Hezkuntza-esparru eleaniztunaren helburuak**

- Ikasleak eleaniztasunean gaitzea, derrigorrezko hezkuntza amaitzean hizkuntza ofizialak ondo menderatzen dituztela eta, gutxienez, atzerriko hizkuntza batean gaitasun nahikoa dutela eta gizarte eleaniztun eta kulturaniztun batean elkarrekin bizitzeko gai direla bermatzeko.
- Euskara erreferentzia-hizkuntza gisa indartzea eta ikasleen erabilera aktiboa sustatzea.
- Ikaskuntza-prozesua garatzerakoan, ikasleek duten gaitasun eleaniztuna erabil dezatela, eta, aldi berean, euskal kulturaz jabetuz joan daitezela.
- Atzerriko ikasleen hizkuntzak eta kulturak ikastetxeetan agerian jartzea, elkarrekiko aintzatespena bultzatzea, aniztasunaren balio kulturala eta ekonomikoa nabarmentzea eta hezkuntza-integrazioa sustatzea, betiere euskara eta euskal kultura ardatz direla.
- Ikasleengan beste hizkuntza eta kultura batzuekiko jakin-mina piztea, nolakoak diren eta nola funtzionatzen duten jakinaraztea eta bizitza osoan haiek ikasteko autonomia izatea.

**Objetivos del marco educativo plurilingüe**

- Proporcionar al alumnado una competencia plurilingüe, a fin de garantizar que, al finalizar la educación obligatoria, poseerá un buen dominio de las lenguas oficiales y un grado de competencia suficiente en, al menos, una lengua extranjera, y será capaz de convivir en una sociedad multilingüe y multicultural.
- Reforzar el papel del euskera como lengua de referencia y fomentar su uso activo por parte del alumnado.
- Desarrollar en el alumnado la capacidad de utilizar su competencia plurilingüe en el desarrollo de su proceso de aprendizaje, adquiriendo, al mismo tiempo, conciencia de la cultura vasca.
- Hacer presentes en los centros las lenguas y culturas del alumnado de origen extranjero, favorecer el reconocimiento mutuo, destacar el valor cultural y económico de la diversidad y promover la integración educativa, siempre con el euskera y la cultura vasca como eje.
- Despertar en el alumnado la curiosidad por otras lenguas y culturas, proporcionarles conocimientos sobre cómo son y cómo funcionan, así como favorecer su autonomía para aprenderlas a lo largo de la vida.

Curriculumek bermatu behar dute, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzean, ikasleek gure bi hizkuntza ofizialen (euskara eta gaztelania) ezagutza praktiko nahikoa izango dutela, bai eta, gutxienez atzerriko hizkuntza baten ezagutza nahikoa izango dutela ere, eta komunikazio-maila egokia izango dutela hezkuntza-etapa hori amaitzean.

Lanbide Heziketako eta araubide bereziko irakaskuntzen curriculumek ere bermatuko dute ikasleek eskuratuko dutela haietako bakoitzari dagokion irakaskuntzako eta lanbide-eremuko hizkuntza-gaitasun teknikoa.

Eusko Jaurlaritzak eta ikastetxeek beharrezko diren neurriak ezarriko dituzte hizkuntza-helburuak lortzen direla eta gainerako ikasgaietan gaitasunak eskuratzen direla bermatzeko, eta ingurune bakoitzaren abiapuntua eta ezaugarri soziolinguistikoak hartuko dira kontuan.

Eusko Jaurlaritzak ebaluazio-tresna batzuk jarriko ditu lortutako mailak balioztatzeko, eta jarraipen-sistema eraginkor bat ezarriko du ebaluazioaren emaitzak hobetzeko eta helburuak lortzeko.

Euskal Hezkuntza Sistemaren barruan, euskararen erabilera bultzatuko da jarduera-harremanetan eta profesionalen arteko harremanetan, bai eta ikasleen eta irakasleen arteko harreman formaletan eta ez-formaletan ere. Irakasleen prestakuntzak hizkuntzen eta euskal kulturaren irakaskuntzako metodologiak hobetzea ere jasoko du.

Euskal Hezkuntza Sisteman berandu sartzen diren atzerriko ikasleen harrerak eta hizkuntza-arretak ikerketa- eta garapen-programa integral batzuk eskatzen ditu, eta programa horietan ikastetxeek eta administrazio publikoek parte hartuko dute, ikasle horien inklusioa ahalbidetzeko. Halaber, hezkuntza-esperientzien trukea bultzatuko da beste herrialde batzuekin lankidetzan, bai eta ikasleen eta irakasleen mugikortasuna ere.

Aipatutako erronka nagusiei dagokienez, honako hauek dira gakoak, beharrezkoa den zeharkakotasuna lortzeari begira:

1. **Hezkuntza-sistema bakarra eta askotarikoa,** dibertsitatetik lan egiteko. Testuinguru soziolinguistikoa zein ikasleen profil soziolinguistikoa eta sozioekonomikoa kontuan hartuz, askotariko dibertsitatea dugu. Hortaz, ikastetxeen autonomia haien ibilbide propioak diseinatzeko giltzarria da.

2. **Epe luzerako plana eta barne-koherentzia. Lidergoa eta lankidetza.** Orain arte ere planak egin dira, baina norabidea hobeto zehaztu beharra dago; plan adostu bat behar da epe labur, ertain eta luzerako helburuak zehaztuta izango dituena, Hezkuntza Sailaren

Los currículos deben garantizar, al finalizar la Educación Secundaria Obligatoria, el conocimiento práctico suficiente de nuestras dos lenguas oficiales, euskera y castellano, por parte del alumnado, así como un conocimiento suficiente de, como mínimo, una lengua extranjera, con un nivel adecuado de comunicación al finalizar dicha etapa educativa.

Los currículos de las enseñanzas de Formación Profesional y las enseñanzas de régimen especial garantizarán, asimismo, que el alumnado adquiera la competencia lingüística técnica propia de la enseñanza y el ámbito profesional respectivos.

El Gobierno Vasco y los centros educativos fijarán las medidas necesarias para garantizar el logro de los objetivos lingüísticos y la adquisición de competencias en el resto de las materias, y se tendrán en cuenta el punto de partida y las características sociolingüísticas de cada entorno.

El Gobierno Vasco facilitará herramientas de evaluación, en orden a valorar los niveles obtenidos, y establecerá un sistema eficaz de seguimiento, a fin de mejorar los resultados de la evaluación y cumplir los objetivos.

En el seno del Sistema Educativo Vasco, se potenciará el uso del euskera en las relaciones de actividad entre profesionales, así como en las relaciones formales y no formales entre el alumnado y el profesorado. La formación del profesorado contemplará la mejora en las metodologías de la enseñanza de las lenguas y la cultura vasca.

La acogida y la atención lingüística del alumnado de origen extranjero que se incorpora tardíamente al Sistema Educativo Vasco requieren de programas integrales de investigación y desarrollo que posibiliten la inclusión de ese alumnado, en los que cooperarán los centros educativos y las administraciones públicas. Se potenciará, asimismo, el intercambio de experiencias educativas en cooperación con otros países, así como la movilidad de alumnado y profesorado.

Estas son las claves de la necesaria transversalidad en los retos fundamentales indicados:

1. **Un sistema educativo único y diverso** para trabajar desde la diversidad. Teniendo en cuenta tanto el contexto sociolingüístico como el perfil sociolingüístico y socioeconómico del alumnado, nuestra diversidad es muy acusada. Por tanto, la autonomía de los centros es clave a la hora de diseñar sus propios itinerarios.

2. **Plan a largo plazo y coherencia interna. Liderazgo y cooperación.** Hasta ahora se han venido elaborando planes, pero es preciso definir mejor el rumbo; se necesita un plan consensuado con objetivos a corto, medio y largo plazo, un plan coherente que implique a

lidergoan eragile guztiak inplikatuko dituen plan koherente bat.

Hezkuntza-eragileek badituzte eskarmentu eta gaitasun baliagarriak. Nagusiak hauexek dira: Hezkuntza Saila (bere zerbitzuekin), ikastetxeak, irakasleak eta unibertsitateak. Haien arteko lankidetza eta kudeaketa asmatu beharra dago.

3. **Ikasleen hizkuntza-gaitasunaren irudikapena.** Pertsona elebiduna ez da bi eleren batura duena. Elebidunaren gaitasuna, gaitasun elebiduna da, eta hiztun eleaniztasunena, berriz, gaitasun eleaniztuna. Esan nahi da hizkuntzak modu bateratuan planifikatzea eta lantzea eta haien arteko transferentziak egiten ikastea, halako eran no hizkuntzek elkarri lagunduko dioten.

4. **Irakasle bikainak** behar ditu plan bikain batek. Hona irakasleen prestakuntzarako hausnar-gaiak: irakasle lanbideari prestigio gehiago emateko, Hezkuntza Sailak neurriak eta pedagogia soziala bultzatuko ditu. Irakasle bikainak eta konprometituak erakarri behar dira.

5. **Ikerketa** aplikatuaren bidez, kanpo-ebaluazioen emaitzak aztertzea eta ikertzea, berrikuntza-proiektuen eraginkortasuna etengabe hobetzeko. Hezkuntza Sailak unibertsitateekin batera aztertuko du zer eta zelan.

6. **Ikasmaterial** egokiak ziurtatzea, eraldaketa-tresna horiek erabakigarriak baitira ikas-prozesuan. Ikasmaterialen ebaluazio orok irizpide argiz egina eta ikaskuntza-metodologiekin bat datorrena izan behar du.

7. **Eskola-ekosistema bat da,** eta, aldi berean, beste zabalago baten parte da, gure kasuan komunitate plural baten barruan. Testuinguru soziolinguistiko batzuetan eskola da euskara ikasteko eta erabiltzeko eremu bakarra, nahiz eta haietan ere lehen hizkuntzatzat euskara dutenak ere eskolatzen diren. Badaude, baita ere, eskualde oso euskaldunak izanda, ia euskaraz ez dakiten ikasleak hartzen dituztenak. Bi egoera horien artean kokatzen dira gainerakoak, eta denak jaso eta landu behar ditu Euskal Hezkuntza Sistemak, ekitate eta bikaintasuna dituela ortzi-muga.

Euskal gizarteak duen komunitate-senak erakusten digu erronkarik sakonenek berrikuntza eta hobekuntza ekar ditzaketela. Hori gertatu zen duela 40 urte. Gaur ere asmatzea tokatzen da. Erronkak

todos los agentes en el liderazgo del Departamento de Educación.

Los agentes educativos cuentan con experiencia y competencias útiles. Los principales son el Departamento de Educación (con sus servicios), los centros educativos, el profesorado y las universidades. Hay que idear una forma de colaboración y gestión compartida entre ellos.

3. **Representación de la competencia lingüística del alumnado.** Una persona bilingüe no es la que posee la suma de dos idiomas. La competencia de la persona bilingüe es competencia bilingüe, y la competencia de la persona plurilingüe es competencia plurilingüe. Es decir, se trata de planificar y trabajar las lenguas de forma conjunta, y de aprender a transferir entre ellas, de manera que las lenguas se ayuden mutuamente.

4. Un plan excelente necesita **excelentes profesores**. He aquí algunos temas de reflexión para la formación del profesorado: el Departamento de Educación impulsará medidas y pedagogía social a fin de prestigiar la profesión docente. Es preciso atraer profesores excelentes y comprometidos.

5. Analizar e investigar, mediante **investigación** aplicada, los resultados de las evaluaciones externas, de cara a la mejora continua de la eficacia de los proyectos de innovación. El Departamento de Educación analizará qué y cómo, en colaboración con las universidades.

6. Asegurar los **materiales didácticos** adecuados, ya que se trata de instrumentos de transformación determinantes en el proceso de aprendizaje. Toda evaluación de los materiales didácticos debe ser realizada con arreglo a un criterio claro y acorde con las metodologías de aprendizaje.

7. **La escuela es un ecosistema** y, al mismo tiempo, forma parte de otro más amplio, en nuestro caso, de la comunidad plural. En determinados contextos sociolingüísticos, la escuela es el único espacio de aprendizaje y uso de la lengua vasca, si bien una parte de su alumnado tiene el euskera como primera lengua. Asimismo, en zonas con un porcentaje elevado de vascohablantes, una parte del alumnado llega a la escuela con un conocimiento exiguo del euskera. Entre ambos, se ubica toda una variedad de situaciones, y todas ellas deben ser abordadas por el Sistema Educativo Vasco desde una perspectiva de equidad y excelencia.

El sentido de comunidad de la sociedad vasca nos demuestra que los mayores retos pueden derivar en innovación y mejora. Eso sucedió hace cuarenta años. Hoy también es preciso acertar. Los retos son

handiak dira, baina zumeak ditugu: jakintza, eskarmentua, motibazioa eta beharra.

grandes, pero disponemos de mimbres: conocimiento, experiencia, motivación y necesidad.

**Hizkuntza-proiektuak eta ikuspegi metodologikoa**

**Proyectos lingüísticos y enfoque metodológico**

Funts publikoekin sostengatutako ikastetxeek beren hezkuntza-proiektuaren atal gisa landuko dute hizkuntza-proiektua ikuspegi metodologikoa barne, betiere ingurune soziolinguistikoa eta ikasleen profilak kontuan hartuta, ikasleek hezkuntza-etapa bakoitzaren amaieran beharrezko den hizkuntza-maila eta gaitasunak eskura ditzaten. Halaber, ikaskuntza-prozesuan hizkuntzak irakasteko eta erabiltzeko irizpideak garatuko dituzte. Ikastetxearen hizkuntza-proiektuaren jarraipena eta ebaluazioa egin beharko da. Euskarari dagokionez, hizkuntza-proiektuak curriculumaren eta ikastetxearen helburuak zehaztu beharko ditu, bai eta eskolaz kanpoko jardueren proposamenak ere, euskararen erabilera ziurtatzeko.

Los centros sostenidos con fondos públicos elaborarán un proyecto lingüístico como parte de su proyecto educativo, incluyendo su enfoque metodológico, teniendo en cuenta el entorno sociolingüístico y los perfiles del alumnado, de forma que, al final de cada etapa educativa, este haya adquirido los niveles lingüísticos y competencias necesarios. Asimismo, desarrollarán criterios para la enseñanza y el uso de las lenguas en el proceso de aprendizaje. Se deberá realizar un seguimiento y una evaluación del proyecto lingüístico del centro. En cuanto al euskera, el proyecto lingüístico deberá definir los objetivos del currículo y del centro, así como las propuestas de actividades extraescolares para asegurar su uso.

Irakasleriaren prestakuntza, ezinbestekoa hizkuntzen irakaskuntza-praktika berrietan sakontzeko.

La formación del profesorado, imprescindible para profundizar en prácticas innovadoras de enseñanza de las lenguas.

Irakasleen prestakuntza estrategikoa da hezkuntza-sistemaren helburuak lortzeko. Sistema eleaniztun batean irakasleak hizkuntzan gaituta ez egotea pentsaezina da. Euskararen kasuan, gaitasun-mailako datuak onak izanik ere, uste dugu zer hobetu badagoela. Eta ingelesaren kasuan, berriz, urrun gaude ingelesaren eta ingeles bidezko irakaskuntza handitzeko beharrezkoa den giza baliabide nahikoa izatetik.

La formación del personal docente es crucial para poder conseguir los objetivos del sistema educativo. En un sistema plurilingüe, resulta inconcebible que las profesoras y los profesores no cuenten con las suficientes competencias lingüísticas. En el caso del euskera, si bien los datos relativos a la competencia lingüística son positivos, creemos que hay aspectos que mejorar. En cuanto al inglés, estamos lejos de contar con los recursos humanos suficientes para poder ampliar la enseñanza del y a través del inglés.

Hizkuntza curricularretan irakasleek daukaten gaitasuna hobetuz joateko neurri batzuk jarriko dira abian honako irizpide hauetan oinarrituta:

Siendo así, se desarrollarán una serie de medidas, con el fin de contribuir a mejorar la competencia del personal docente en los idiomas curriculares, basándonos en una serie de criterios:

- Euskara-mailari dagokionez, azken hamarkadotan irakasleen gaitasunean aurrerapen handia egon da –gaur % 93k 2. hizkuntza eskakizuna edo gehiago egiaztatu du–eta, duda barik, kolektibo horrek egin dituen ahaleginak aintzat hartu behar dira. Hori esanik ere, jakina da irakasle asko beren euskara-abileziak direla eta eroso ez daudela, batez ere lanetik kanpo euskara erabiltzeko aukera gutxi dituztenen kasuan. Auzi horri helduko diogu eta behar duten irakasleei laguntza eskainiko diegu, C1+ maila lortzeko eta euskara ondo menderatzen laguntzeko, batez ere ahozko mailan.

- En cuanto al euskera, durante las últimas décadas se ha producido un gran avance en el nivel del personal de docente –en la actualidad, el 93 % del profesorado ha certificado el perfil lingüístico 2 o superior–, por lo que, sin lugar a dudas, debemos tener en cuenta el esfuerzo realizado por este colectivo. No obstante, es de sobra conocido que gran parte del personal docente no se siente cómodo con su dominio del euskera, sobre todo en aquellos casos en los que carecen de ocasiones suficientes para emplear la lengua vasca fuera del entorno laboral. Abordaremos este tema, y proporcionaremos ayuda a los profesores y a las profesoras, para alcanzar el nivel C1+ y ayudarles a desarrollar un dominio óptimo del euskera, sobre todo a nivel oral.

- Ingeleseko eta atzerriko beste hizkuntzetako irakaslea izateko maila momentu honetan B2n dago ezarrita. Gaur egungo gaitasun-datuak ikusita –B2 maila % 14 batek baino ez dauka,

- En este momento el nivel para ser profesor de inglés y otros idiomas extranjeros es B2. Teniendo en cuenta los datos actuales –solo un 14 % tiene B2, y solo un 8,1 % de la red

eta C1 edo C2 bakarrik sare publikoko % 8,1k eta itunpeko sareko % 5,4k–, epe ertaineko plangintzari begira, irakasleek C1 maila izatea ipini beharko litzateke helburu estrategiko moduan.

- Hezkuntza-sistemara sartuko diren irakasle berrien profila zehaztuko da, ezaugarri berriak dituen gizarte honetan ikasle gaitu batzuk hezteko gaitasunek ere askotarikoak izan behar dutelako.

**Hizkuntzen tratamendu integrala eta integratua. Metodologiak**

Curriculumak hizkuntzen tratamendu integratu eta integrala jasoko du. Tratamendu hori, aldi berean, ikastetxearen hizkuntza-proiektuan jasoko da, bi hizkuntza ofizialetan eta gutxienez atzerriko hizkuntza batean gaitasun nahikoa lortzeko. Komunikazio- eta hizkuntza-gaitasunaren garapena zeharka landuko da curriculum-arloen testuinguruan.

Bere aldetik, hizkuntzazkoak ez diren irakasgaietako irakasleek komunikazio- eta hizkuntza-gaitasuna garatzen laguntzeko ardura izango dute. Era berean, ikastetxeek hizkuntza-proiektuaren barruko helburuak planifikatu eta finkatuko dituzte ikasgai guztietan, komunikazio-gaitasuna lantzeko.

**Irakasleen hizkuntza-gaitasuna hobetzeko prestakuntza**

Prestakuntzak honako ekintza hauek hartuko ditu kontuan:

(i) irakasleak curriculum-hizkuntzetan hizkuntza-gaitasuna hobetzeko garapen- eta hobekuntza-plan bat;

(ii) prestakuntza-plan bat, euskararekiko eta curriculumeko beste hizkuntzekiko konpromisoa sustatuko duena, bai eta horiek erabiltzea ere beharrezkoa dela ziurtatuko duena;

(iii) irakasleak euskara-gaitasunetan trebatzeak eta atzerriko hizkuntza batek, batez ere ingelesak, kalitatezko irakaskuntzaren beharrei erantzungo diela.

**Prestakuntza metodologikoa hizkuntzen irakaskuntzan**

Eskola eleaniztun bat planteatzeak –ez hizkuntza desberdinak irakasten dituen eskolak– kontzeptuen esparrua aldatzea dakar eta irakasleekin lan espezifikoa egitea eskatzen du. Helburuak lortzeko eta ikaskuntza-agertoki berriak abian jartzeko, proiektu eleaniztunak gauzatzeko prestakuntza espezifikoa ahalbidetuko da. Hezkuntza Sailak berariazko prestakuntza planteatuko du, bai metodologiari dagokionez, bai curriculumaren diseinuan eta

pública y un 5,4 % de la red concertada tiene C1 o C2–, de cara a una planificación a medio plazo, como objetivo estratégico debería proponerse un nivel C1 para este profesorado.

- Se definirá el perfil del personal docente de nueva incorporación al sistema educativo, ya que, en esta sociedad cambiante, también las competencias necesarias para educar a un alumnado competente deben ser heterogéneas.

**Tratamiento integral e integrado de las lenguas. Metodologías**

El currículo incluirá un tratamiento integrado e integral de las lenguas. Este tratamiento será recogido, a su vez, en el proyecto lingüístico del centro, con el fin de alcanzar la competencia suficiente en las dos lenguas oficiales y en, al menos, una lengua extranjera. El desarrollo de la competencia comunicativa y lingüística se trabajará, de forma transversal en el contexto de las áreas curriculares.

Por su parte, el profesorado de las materias no lingüísticas será responsable de contribuir al desarrollo de la competencia comunicativa y lingüística, y los centros planificarán y fijarán objetivos dentro del proyecto lingüístico en la totalidad de las materias, a fin de trabajar la competencia comunicativa.

**Formación para la mejora de la competencia lingüística del profesorado**

La formación contemplará las siguientes acciones:

(i) un plan de desarrollo y mejora para la mejora de la competencia lingüística del profesorado en las lenguas curriculares;

(ii) un plan de formación que fomente el compromiso con el euskera y con las otras lenguas del currículo y confirme la necesidad de su uso;

(iii) que la formación del profesorado en competencias en euskera y una lengua extranjera, especialmente la inglesa, responderá a las necesidades de una enseñanza de calidad.

**Formación metodológica en la enseñanza de idiomas**

Plantear una escuela plurilingüe –no una escuela que enseñe diferentes lenguas– supone cambiar el marco conceptual y requiere un trabajo específico con el profesorado. De cara a la consecución de los objetivos y la puesta en marcha de nuevos escenarios de aprendizaje, se posibilitará una formación específica para la realización de proyectos plurilingües. El Departamento de Educación planteará formación específica tanto en metodología como en

diziplinarteko lanean duen aplikazioari dagokionez ere, hizkuntza-proiektuak sistema eleaniztun batean gauzatzeko, euskara ardatz nagusitzat hartuta.

su aplicación al diseño y trabajo interdisciplinar del currículo, a fin de llevar a cabo proyectos lingüísticos en un sistema plurilingüe con el euskera como eje central.

## IKASTEKO ETA ETENGABE HOBETZEKO PALANKAK

## PALANCAS PARA EL APRENDIZAJE Y LA MEJORA CONTINUA

### Hezkuntzaren eraldaketa eta hobekuntza bi ardatzetan: ekitatea eta bikaintasuna

### Transformación y mejora educativa en dos ejes: equidad y excelencia

Ekitatea eta bikaintasuna hezkuntza-eraldaketaren bi alderdi dira. Garrantzitsua da erronka: kezka moduan bizitzetik aukeratzat hartzera. Aukera da gizarte-kohesioa, aukera izango den bezalaxe lege honek euskal eskola inklusibo baten alde egingo duen apustu irmoa, ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko; hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentziorako; ikasle ijitoak eskolaratzeko; adimen-gaitasun handiko ikasleentzako jardunerako; ikasleen eskubideak eta betebeharrak zaintzeko; eskola-jazarpen eta ziberjazarpenaren aurrean jarduteko edota trans ikasleei edo genero-jokabide ez-arautua duten ikasleei laguntzeko.

La equidad y la excelencia educativa son dos facetas de la transformación educativa. El reto es importante: se trata de pasar de vivirlo como motivo de preocupación a asumirlo como oportunidad. La cohesión social es una oportunidad, como lo será la decidida apuesta que esta ley hará por una escuela vasca inclusiva que desarrolle planes, programas y protocolos en materia de atención educativa al alumnado inmigrante, de coeducación y prevención de la violencia de género, de escolarización del alumnado gitano, de actividad del alumnado con altas capacidades intelectuales, de observancia de los derechos y deberes del alumnado, de actuación ante el acoso escolar y ante el *cyberbullying*, o de acompañamiento al alumnado trans o con comportamiento no normativo de género.

Gainera, bikaintasunak behar du izan Euskal Hezkuntza Sistemaren ikur nagusietariko bat, sistema etengabeko hobekuntza eta aukerak optimizatzea sustatzen dituzten formulak saiatzeko. Ahaldundutako ikastetxek proiektu partekatuak eraikiko dituzte eta adimen kolektiboko espazioak antolatzea bultzatuko, bikaintasun-eremuak bilatzeko helburuz.

Además, la excelencia debe ser uno de los principales distintivos del Sistema Educativo Vasco, a la hora de ensayar fórmulas que promuevan la mejora continua y la optimización de oportunidades. Los centros realmente empoderados construirán proyectos compartidos e impulsarán la organización de espacios de inteligencia colectiva, con el objetivo de hallar ámbitos de excelencia.

### Euskararen Ikaskuntzarako Institutua

### Instituto para el Aprendizaje de Euskera

Euskal Hezkuntza Sistemari ahalegin berezia eskatzen dio hizkuntzen metodologien trataerak zein irakasleen prestakuntzak. Horrek eskatzen ditu, hizkuntza-mailak ziurtatzeko baliabideak, dokumentazio egokiak, ikerketak, prospekzioak, ebaluazioak… Eta hori guztiori, unean-unean euskal komunitatea hizkuntza arloan izaten ari den jarrerarekin, aurrerapenarekin eta inplikazioarekin lotzea.

Tanto el tratamiento de las metodologías lingüísticas como la formación del profesorado exigen un especial esfuerzo al Sistema Educativo Vasco. Tal esfuerzo requiere recursos para certificar los niveles lingüísticos, documentación adecuada, estudios, prospecciones, evaluaciones... Y todo ello, ligado a la actitud, progreso e implicación lingüística que en cada momento muestra la comunidad vasca.

Helburu propio horiek bere gain hartuko dituen erakunde sendo bat eratuko da, azken lau hamarkadetan Euskara Zerbitzuak izan dituen eginkizunen jarraipena ere barne hartuko dituena.

Se constituirá una institución sólida que asuma estos objetivos propios, incluyendo el seguimiento de las funciones que el Servicio de Euskera ha venido desempeñando a lo largo de las últimas cuatro décadas.

Euskararen Ikaskuntzarako Institutuak Euskararen Aholku Batzordeak onetsitako lan-ildoak izan ahalko ditu kontuan, bereziki ondoko hauek: irakasleen gaikuntza hizkuntzan eta metodologian, euskal kultura transmititzeko gaikuntza barne; hizkuntza-ziurtagirien beharrak aztertu, proposatu eta ezartzean; euskal curriculumaren lanketan eta eskola-materialaren ekoizpenaren antolakuntzan, eta eskola-eremuan hizkuntzaren erabilerarako dinamizatze

El Instituto para el Aprendizaje del Euskera podrá tomar en consideración las líneas de trabajo aprobadas por el Consejo Asesor del Euskera, especialmente la capacitación lingüística y metodológica del profesorado, incluida la capacitación para la transmisión de la cultura vasca; el análisis, propuesta e implantación de las necesidades de certificación lingüística; la elaboración del currículo vasco y la organización de la producción

lanetan.

### Ikaskuntzarako Berrikuntza Zentroa

Ikaskuntzarako Berrikuntza Zentroa bultzatuko da, hezkuntza arloan prestakuntza, aholkularitza, ikerketa eta berrikuntzaz arduratuko den organo gisa. Zentro hori kudeaketa, antolakuntza, metodologiak eta tresnak garatzeko eredu aurreratuen ezagutza transferitzeaz arduratuko da, hori guztia Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe guztien premia eta errealitateetara egokituta.

Organo honen helburuak hauexek dira: unibertsitatez kanpoko mailetako hezkuntza-berrikuntzaren arloan ikertzea; curriculuma zehaztea eta garatzea; metodologiei eta teknologiei buruzko prestakuntza eta aholkularitza ematea irakasleei eta ikastetxeei; ikaskuntza-prozesuak hobetuko dituzten ingurune presentzial eta digital berrietan etengabeko hobekuntza garatzen laguntzea; irakasleen komunikazio-gaitasun integrala sustatzea testuinguru eleaniztunean; ikastetxeen antolaketarako modu berriak eta kudeaketaren eraginkortasuna sustatzea; eta eskola inklusiboaren garapena eragitea, ikasle guztiek parte hartuz eta ikasteko prozesuetan hobekuntzak eraginez.

### Ikuskaritza

Hezkuntza Ikuskaritza zerbitzu profesionala da, independentea eta kualifikazio handikoa eta independentea da etengabeko prestakuntza- eta berrikuntza-prozesuan, gizarteak hezkuntza arloan dituen premia aldakorrei eraginkortasunez erantzuteko, eta Euskal Hezkuntza Sistema hobetzeko prozesuan eta haren printzipio eta balioen garapenari balio erantsia emateko.

Hezkuntza-komunitate osoaren eskubideak defendatzeaz arduratuko da, bai eta haren betebeharrak betearazteaz ere, eta ekitatearen, aukera-berdintasunaren, bikaintasunaren eta pertsonen zaintzaren printzipioak azpimarratuko ditu. Era berean, funtsezko zeregina du bizikidetza positiboa bermatzeko eta gatazkak modu eraikitzailean konpontzeko.

Ikastetxeekin lankidetzan arituko da hezkuntza-proiektuak bultzatzen eta garatzen, metodologia eta praktika berriak ezartzen, autoebaluazio- eta kanpo-ebaluazioko prozesuetan, antolamenduaren eta funtzionamenduaren eraginkortasuna hobetzen. Halaber, pedagogia- autonomia- eta antolamendu-heldutasuna bultzatzeko proposamenak egingo ditu, kalitatea hobetzeko helburuz.

Botere publikoek ikuskapen-, gainbegiratze- eta ebaluazio-gaietan duten erantzukizunaren esparruan, hezkuntza-ikuskaritzako zerbitzuak honako arlo hauetan beteko ditu bere eginkizunak: (i) araudia

de material escolar, y la dinamización del uso de la lengua en el ámbito escolar.

### Centro de Innovación para el Aprendizaje

Se impulsará el Centro de Innovación para el Aprendizaje como órgano responsable de la formación, el asesoramiento, la investigación y la innovación en el ámbito educativo. Este centro se encargará de transferir el conocimiento de modelos avanzados de desarrollo de gestión, organización, metodologías y herramientas, adaptado todo ello a las necesidades y realidades del conjunto de los centros de enseñanza no universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Los fines de este órgano son los siguientes: investigación en materia de innovación educativa en los niveles no universitarios; concreción y desarrollo curricular; formación y asesoramiento metodológico y tecnológico al profesorado y a los centros; apoyo al desarrollo de la mejora continua en nuevos entornos presenciales y digitales que mejoren los procesos de aprendizaje; fomento de la competencia comunicativa integral del profesorado en el contexto plurilingüe; fomento de nuevas formas de organización y de la eficiencia en la gestión de los centros, y promoción del desarrollo de una escuela inclusiva, con participación del conjunto del alumnado y mejora de los procesos de aprendizaje.

### Inspección educativa

La Inspección educativa es un servicio profesional, altamente cualificado e independiente en el proceso de formación continua e innovación, para responder eficazmente a las necesidades cambiantes de la sociedad en el ámbito educativo y aportar valor añadido al proceso de mejora del Sistema Educativo Vasco y al desarrollo de sus principios y valores.

La Inspección velará por la defensa de los derechos de toda la comunidad educativa, así como por el cumplimiento de sus obligaciones, incidiendo en los principios de equidad, igualdad de oportunidades, excelencia y cuidado de las personas. Asimismo, jugará un papel fundamental para garantizar una convivencia positiva y resolver conflictos de forma constructiva.

Colaborará con los centros en el impulso y desarrollo de proyectos educativos, en la implantación de nuevas metodologías y prácticas, en los procesos de autoevaluación y evaluación externa, en la mejora de la eficacia de la organización y funcionamiento, Asimismo, realizará propuestas para impulsar la autonomía y la madurez pedagógica y organizativa, con el fin de mejorar la calidad.

En el marco de la responsabilidad de los poderes públicos en materia de inspección, supervisión y evaluación, el servicio de inspección educativa ejercerá sus funciones en las siguientes

betearaztea; (ii) ikastetxeen funtzionamendua, ikaskuntza-jarduera eta zuzendaritza-eginkizuna gainbegiratzea, eta hobekuntza-prozesuetan laguntzea; (iii) hezkuntza-sistemaren ebaluazioan eta sistema osatzen duten elementuetan parte hartzea; eta (iv) hezkuntza-komunitateko sektore guztiei aholkularitza ematea, beren eskubideak betetzeari dagokionez.

materias: (i) cumplimiento de la normativa; (ii) supervisión del funcionamiento de los centros, de la actividad de aprendizaje y de la función directiva, y apoyo en los procesos de mejora; (iii) participación en la evaluación del sistema educativo y en los elementos que lo integran; y (iv) asesoramiento a todos los sectores de la comunidad educativa en el ejercicio de sus derechos.

**Eraldaketa eta inklusiorako digitalizazioa**

Digitalizazioak hezkuntzari aukera askotarikoak eskaintzen dizkio, betiere ikaslearen ahalduntzearekin zuzenean lotuak.

Digitalizazio-estrategia berri baten bidez, Euskal Hezkuntza Sistemak erantzuna eman nahi die egungo testuinguru berrian planteatutako erronkei, bai teknologia digitalaren erabilera areagotuz irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan, bai eta eraldaketa digitalerako oinarrizko trebetasunen garapena eratuz ere. Teknologia egokiak eta beharrezko diren jarraibide metodologikoak premiazkoak dira, oinarri pedagogikoak kontuan hartu eta ikaskuntza-prozesuak modu berrien bidez bultzatzeko, digitalizazioak eskaintzen dituen aukerak baliatuz.

Era berean, irakaskuntzaren gaikuntzarako plan bat indartzea aurreikusiko du legeak, non garrantzizkoena izango den lanabes digitalak ikasleen ikaskuntzari modu espezifikoan eskaintzeko erabiltzea, bai eta ingurune birtual integralak sortzea ere, prozesuen eta ikaskuntzaren kudeaketa eta ebaluazioa jasotzeko, eta, orobat, familiekiko eta inguruarekiko komunikazioa izateko.

Euskal Hezkuntza Sistemak digitalizazio etiko, arduratsu, euskaldun eta eraginkorra bermatuko du. Eta epe luzerako begiradarekin diseinatu behar da gure hezkuntza-sistemak bere burua eraldatu dezan, bai eta digitalizazio arloan ere.

Hau guztiau, ikasleen eskubide digitalak eta pribatutasuna errespetatuz eta bitarteko teknologiko auditagarri, berrerabilgarri, libre eta gardenak erabiliz egingo da.

**Digitalización para la transformación e inclusión**

La digitalización ofrece a la educación múltiples posibilidades, siempre directamente relacionadas con el empoderamiento del alumnado.

Mediante una nueva estrategia de digitalización, el Sistema Educativo Vasco pretende dar respuesta a los retos planteados en el nuevo contexto actual, tanto incrementando el uso de la tecnología digital en los procesos de enseñanza-aprendizaje como desarrollando habilidades básicas para la transformación digital. Se precisan tecnologías adecuadas y pautas metodológicas que tengan presentes los fundamentos pedagógicos y aprovechen las oportunidades que la digitalización ofrece de cara al impulso de los procesos de aprendizaje por nuevas vías.

Asimismo, la ley preverá el refuerzo de un plan de capacitación docente, en el que se prime la utilización de los recursos digitales para responder al aprendizaje del alumnado de una forma específica, junto a la creación de entornos virtuales integrales que recojan la gestión y evaluación de los procesos y del aprendizaje, así como la comunicación con las familias y el entorno.

El Sistema Educativo Vasco garantizará una digitalización ética, responsable, euskaldún y eficaz. Y hay que diseñar con una mirada a largo plazo para que nuestro sistema educativo se transforme a sí mismo también en digitalización.

Todo ello respetando los derechos digitales y la privacidad del alumnado y utilizando medios tecnológicos auditables, reutilizables, libres y transparentes.

**Irakaskuntza-funtzioaren paradigma. Irakatsi eta ikasteko inguruneak eta prozesuak berriz diseinatzea**

Hezkuntzaren arrakastarako gakoetako bat irakasleria da. Irakasleen jarduera eraldatzailea eta eraginkorra irakasle bakoitzak egiten duenetik abiatuko da eta, aldi berean, ikastetxeak kolektiboki landuko duenetik: praktikak aztertzea, eztabaidatzea eta adostea; prozesu berriak birformulatzea, diseinatzea eta lantzea, eta eskolen arteko lankidetza, kanpoko adituen laguntza barne. Lana ez da erraza baina irakasleen gehiengo handi batek aldarrikatzen du hasierako formazio-ereduak aztertzea, asko eta sakonak baitira XXI. mendera egokitzeko premiak, bai curriculumari buruzkoak, eta baita ere antolaketa

**El paradigma de la función docente. Rediseño de los entornos y procesos de enseñanza-aprendizaje**

Una de las claves del éxito educativo reside en el profesorado. La labor transformadora y eficaz del profesorado partirá del desempeño de cada profesor y, a su vez, de lo que el centro trabaje colectivamente: análisis, debate y consenso respecto a las diversas prácticas; reformulación, diseño y elaboración de nuevos procesos, y la colaboración entre escuelas, incluyendo la ayuda de expertos externos. La tarea no es sencilla, pero una gran mayoría del profesorado reivindica el análisis de los modelos de formación iniciales, ya que las necesidades de adaptación al siglo XXI son muchas y profundas tanto en lo curricular

edota lidergo berria bezalako gaiei dagozkienak.

## Hezkuntza-sistemaren ebaluazioa eta etengabeko hobekuntza

Euskal Hezkuntza Sistemak ebaluazioan dauka hobekuntza-tresna nagusietako bat. Emaitzak hobetu ahal izateko, sistemaren ebaluazio integrala indartuko da, hots, prozedura eta eragile guztien jarduna ebaluatuko da, adierazle adostu eta neurgarri batzuen bidez, eta gure inguruko erkidego eta herrialdeekin homologagarriak direnak. Gainera, hezkuntza-prozesua jarrera positiboekin ere elikatzen denez, garrantzia emango zaie adierazle emozional batzuei ere, hala nola poztasuna, gozamena, ilusioa, kuriositatea, segurtasuna, babesa, lorpena, errotzea, errespetua, maitasuna edo esker ona.

Ikasleen barne-ebaluazioa irakaskuntza- zein ikaskuntza-prozesuak hobetzeko tresna da. Bere ezaugarriak dira indibidualizatua eta etengabea izatea, eta ikaslearen bilakaera islatzeko gai izatea ere. Halaber, ikasleen kanpo-ebaluazioak arrazionalizatzeko ahalegina ere egin behar da, helburuekin koherentzian eta printzipio metodologikoak oinarri. Beharrezkoa da aldizkakotasuna epe ertainean argitzea eta arautzea, ikastetxeek modu normalizatuan integratu ahal izateko ebaluazio horiek.

Zuzendaritza-funtzioa ere ebaluatuko du legeak, kontuan hartuz eskola-emaitzak hobetzerakoan zuzendaritzek duten eginkizunaren erabakigarritasuna.

Ikastetxeen autonomian progresiboki aurrera egiteko apustuan, Euskal Hezkuntza Sistemak ikastetxeen eraginkortasuna ebaluatzeko eredu bat garatuko du, hezkuntzaren eta pedagogiaren ikuspegitik hobetzeko eta Eusko Jaurlaritzaren eta ikastetxeen artean hartzen diren konpromisoen aurrean kudeaketan eta antolaketan erantzukizuna izateko. Kontuak emateak zerikusia du ikastetxeek beharrezko den informazioa izateko beharrarekin, bai eta gizarte demokratiko batek funts publikoekin sostengatutako hezkuntzaren egoera ezagutzeko duen eskubidearekin ere.

Laburbilduz, ebaluaziorako esparru propio bat eraikiko da, ikuspegi integral bat garatzeko; izan ere, prozesu konplexua eta faktore anitzekoa da, ikasleak, irakasleak, curriculuma, zuzendaritzak, ikastetxea, familiak, komunitatea eta hezkuntza-sistema barne hartzen dituena, eta autoebaluazioaren eta kanpo-ebaluazioen arteko osagarritasuna bilatzen duena.

Hau guzti hau Eusko Legebiltzarrak 2018ko urriaren 18an onarturiko Hezkuntzaren aldeko Akordioaren 4.3 atalean esaten dena jasoz eta garatuz egingo da.

como en lo referente a temas como la organización o el nuevo liderazgo.

## Evaluación y mejora continua del sistema educativo

El Sistema Educativo Vasco cuenta con la evaluación como uno de sus principales instrumentos de mejora. De cara a la mejora de los resultados, se reforzará la evaluación integral del sistema, es decir, todos los procedimientos y las actuaciones de los agentes, en el marco de indicadores consensuados, medibles y homologables con las comunidades y países de nuestro entorno. Además, dado que el proceso educativo se alimenta también de actitudes positivas, se prestará atención a indicadores emocionales, como la alegría, el disfrute, la ilusión, la curiosidad, la seguridad, el amparo, el logro, el arraigo, el respeto, el cariño o el agradecimiento.

La evaluación interna del alumnado es un instrumento para mejorar los procesos de enseñanza y aprendizaje. Se caracteriza por ser individualizado, constante y capaz de reflejar la evolución del alumno o alumna. Asimismo, se debe hacer un esfuerzo por racionalizar las evaluaciones externas del alumnado, en coherencia con los objetivos y en base a los principios metodológicos. Es necesario clarificar y regular su periodicidad, en un horizonte temporal de medio plazo, para que los centros puedan integrarlas de manera normalizada.

La ley evaluará la función directiva, teniendo en cuenta que las direcciones inciden de manera decisiva en la mejora de los resultados escolares.

En la apuesta de avance progresivo de la autonomía de los centros, el Sistema Educativo Vasco desarrollará un modelo de evaluación de la eficacia de los centros, para la mejora desde la perspectiva educativa-pedagógica, y de la responsabilidad en la gestión y la organización ante los compromisos que se asuman entre el Gobierno Vasco y los centros educativos. La rendición de cuentas tiene que ver tanto con la necesidad de que los centros dispongan de la información necesaria como con el derecho de una sociedad democrática a conocer la situación de la educación sostenida con fondos públicos.

En resumen, se construirá un marco propio de evaluación, a fin de desarrollar una visión integral; en efecto, se trata de un proceso complejo y multifactorial que comprende a alumnado, profesorado, currículo, direcciones, centro escolar, familias, comunidad y sistema educativo, y que persigue la complementariedad entre autoevaluación y evaluaciones externas.

Todo ello se llevará a cabo recogiendo y desarrollando lo dispuesto en el apartado 4.3 del Acuerdo por la Educación, aprobado por el Parlamento Vasco el 18 de octubre de 2018.

**Prospekzioa**

Prospekzio-jarduera ezinbestekoa da hezkuntza-sistema testuinguruaren eskakizunen arabera moldatzeko. Prospekzioa ariketa garrantzitsua da prospekzioa eta lotuta dago, besteak beste, irakaskuntzako lanbide-profilen identifikazioarekin, hezkuntza-gaitasunen definizioarekin, irakasleen belaunaldi-erreleboarekin, hezkuntza-eskaintza eskarira egokitzearekin eta hezkuntza-sistema eta irakaskuntza-metodologiak iraultza teknologikora egokitzearekin.

Hezkuntza-arloko prospektiba-jarduerak honako erakunde hauek hartuko dituzte bere gain: Eusko Jaurlaritzak, Irakas-Sistemaren Ebaluazio, Ikerketa eta Prospektibarako Euskal Erakundeak (ISEI-IVEI), ikastetxeek eta, hala badagokio, Euskadiko Eskola Kontseiluak, beharrezkoak diren lankidetzak sustatuz.

**Hezkuntza-sistemaren Ebaluazio, Ikerketa eta Prospektibarako Euskal Erakundea**

Hezkuntza Sailari atxikiko zaio ISEI-IVEI. Honako eginkizuna du nagusiki: Euskal Hezkuntza Sistemari buruzko ebaluazioa eta ikerketa egitea.

ISEI-IVEIren jarduerak gardentasun-printzipioaren arabera gidatuko dira; erakunde horrek parte hartzen duen txosten, analisi eta ebaluazio guztiak publikoak izango dira, eta beharrezkoak diren lankidetzak bultzatuko ditu.

**LANKIDETZAKO PRESTAKUNTZA BERRI BATERANTZ**

Irakasleen prestakuntzaren kalitatea da hezkuntza-sistema hobetzeko oinarrietako bat. Hautaketa- eta prestakuntza-prozesuek lehentasuna dute ahalduntzea, profesionaltasuna eta prestigioa bultzatzeko. Esparru horrek bi ardatz nagusi ditu, (i) etorkizun hurbilean irakasle izan nahi dutenekin hausnartzea lanbide horrek eskatzen duenaz eta, ondorioz, sarbiderako beharko diren gaitasun eta trebetasunez jabetzen laguntzea; (ii) irakasleak etorkizuneko gizarterako prestatzea, ez soilik gizarte-eskaerei erantzuteko, hezkuntzaren bidez gizarte jasangarria eta inklusiboa sustatzeko baizik.

Hezkuntza-lana eraginkortasunez garatu ahal izateko ezinbesteko tresnak dira, besteak beste, lan-taldeen egonkortasuna eta kontsolidazioa, ikasle etorkinak eskolan murgiltzeko programak, inklusioa eta aniztasunaren trataera, hezkidetza eta etengabeko eguneratze pedagogikoa.

**Hasierako prestakuntza**

Irakasleen hasierako prestakuntzaren xedea haiek etorkizuneko hezitzaile gisa gaitzea da:

**Prospección**

La actividad prospectiva es imprescindible a la hora de adecuar el sistema educativo a las exigencias del contexto. La prospección es un importante ejercicio, vinculado, entre otros aspectos, con la identificación de perfiles profesionales docentes, la definición de competencias educativas, el relevo generacional del profesorado, la adecuación de la oferta educativa a la demanda, así como con la adaptación a la revolución tecnológica del sistema educativo y de las metodologías docentes.

Las actividades de prospectiva en el campo educativo serán ejercidas por el Gobierno Vasco, el Instituto Vasco de Evaluación, Investigación y Prospectiva de la Educación (ISEI-IVEI), así como por los centros educativos y, en su caso, por el Consejo Asesor Escolar de Euskadi, promoviendo las colaboraciones necesarias.

**El Instituto Vasco de Evaluación, Investigación y Prospectiva del Sistema Educativo**

ISEI-IVEI se adscribirá al Departamento de Educación. Es su principal cometido la evaluación e investigación sobre el Sistema Educativo Vasco.

Las actividades del ISEI-IVEI se guiarán bajo el principio de transparencia; todos los informes, análisis y evaluaciones en las que participe este organismo tendrán carácter público, y promoverá las colaboraciones necesarias.

**HACIA UNA NUEVA FORMACIÓN COLABORATIVA**

La calidad de la formación del profesorado es uno de los pilares sobre los que se sustenta la mejora del sistema educativo. Los procesos de selección y formación son prioritarios, a la hora de favorecer su empoderamiento, profesionalidad y prestigio. Este marco presenta dos ejes fundamentales: (i) reflexionar con quienes quieren ser profesores en un futuro próximo sobre lo que requiere esta profesión y, en consecuencia, ayudarles a adquirir conciencia de las capacidades y habilidades necesarias para el acceso; (ii) preparar al profesorado para la sociedad del futuro, no solo en orden a responder a las demandas sociales, sino de cara a promover una sociedad sostenible e inclusiva a través de la educación.

La estabilidad y consolidación de los equipos de trabajo, los programas de inmersión escolar del alumnado inmigrante, la inclusión y el tratamiento de la diversidad, la coeducación y la actualización pedagógica permanente son instrumentos imprescindibles para el eficaz desarrollo de la labor educativa.

**Formación inicial**

La misión de la formación inicial del profesorado es capacitar a sus componentes como

belaunaldi berriak ziurgabetasunez beteriko etorkizunaren aurrean prestatzea eta heztea.

futuros educadores: se trata de formar y educar a las nuevas generaciones ante un futuro lleno de incertidumbres.

Egungo gizartean eraldatzaile izatea da sortzaileekiko sentiberatasuna izatea, bertako hizkuntza, historia eta kulturaren ezagutza sakon eta zabalaz jabetzea, eta, aldi berean, gure gizartean sortzen diren kultura-zeinu berriak balioesteko gaitasuna erakustea. Irakasle-konpetentziak eskatzen dituen ezagutza pedagogiko eta didaktiko sendoak lortzea da erronka. Ezagutzaz jabetzeak, transposizio didaktikoa egiteko eta arlo ezberdinen tratamendu metodologikorako ezagutza multzoa eskuratzea eskatzen dio hasierako prestakuntzan dabilen irakaslegaiari.

La sensibilidad hacia los creadores, el conocimiento profundo y amplio de su lengua, historia y cultura, así como la capacidad de valorar los nuevos signos culturales que surgen en nuestra sociedad, son elementos transformadores en la sociedad actual. El reto consiste en la adquisición de los sólidos conocimientos pedagógicos y didácticos que requiere la competencia docente. La adquisición de conocimientos exige al profesorado en formación inicial acceder a un conjunto de conocimientos orientados a la transposición didáctica y al tratamiento metodológico de las diferentes áreas.

Irakasleen hasierako prestakuntzak bereziki azpimarratuko ditu alderdi psikopedagogikoak, hizkuntzen ezagutza handia, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak menderatzea eta euskal erakundeen eta kulturaren ezagutza, indarrean dagoen arau-esparruan. Bereziki, irakasleek autoikaskuntzaren sustatzaile gisa duten zeregina azpimarratuko du, bai eta ezagutza eskuratzeko, irizpidea finkatzeko, teknologia berriak bereizten jakiteko eta ikuspegi kritikoak garatzeko eta elkartasuna sustatzeko teknologia berriak erabiltzeko beharrezkoak diren gaitasunak eskuratzeari dagokionez ere.

La formación inicial del profesorado hará especial hincapié en los aspectos psicopedagógicos, el alto conocimiento de las lenguas, el dominio de las tecnologías de la información y la comunicación y el conocimiento de las instituciones y cultura vascas en el marco normativo vigente. En particular, incidirá en el papel del profesorado como promotor del autoaprendizaje y en la adquisición de las competencias necesarias para adquirir conocimiento, fijar criterio, saber diferenciar y utilizar las nuevas tecnologías para desarrollar enfoques críticos y fomentar la solidaridad.

Hasierako prestakuntzan, ikastetxeetako prestakuntza praktikoa sartuko da, esperientzia eskuratzen eta irakasteko gaitasuna garatzen lagunduko duena, bai plangintzan, irakaskuntzan eta ebaluazioan, bai ikaskuntza eta bizikidetza sustatzeko beharrezkoak diren beste trebetasun batzuetan. Hezkuntza Sailari dagokio unibertsitateekin hitzarmen egokiak ezartzea, sistemaren beharrei erantzungo dien berariazko prestakuntza pedagogikoa antolatzeko.

En la formación inicial se incluirá la formación práctica en los centros educativos, que facilite la adquisición de la experiencia y el desarrollo de la competencia docente, ya sea en planificación, docencia y evaluación o en otras habilidades necesarias para fomentar el aprendizaje y la convivencia. Corresponderá al Departamento de Educación establecer los convenios oportunos con las universidades, para la organización de la formación pedagógica didáctica específica que responda a las necesidades del sistema.

Ikastetxeetan irakasleak sexu-hezkuntzan trebatuko dira sexualitatearekin lotutako hainbat gairen aurrean izan ditzaketen jarrerak jorratuz.

En los centros escolares se formará al profesorado en educación sexual, abordando las posibles actitudes ante diferentes temas relacionados con la sexualidad.

Irakasleen prestakuntzan, ikasgelan egin beharreko ikerketetan, eta abarrean, eragile edo tresna interesgarria da, eta eremu horretan izango duten parte-hartzea aurreikusi behar da.

En la formación del profesorado, en las investigaciones a realizar en el aula, etc. es agente o herramienta interesante y cuya participación debe preverse en este ámbito.

Hezkuntza Sailak bermatuko du hasierako prestakuntza egokia, ikasgaiekiko eta pedagogiako prestakuntzaren eta praktiken arteko oreka oinarri hartuta, hezkuntza-sistemaren kalitatea eta ikasleek beharrezko dituzten gaitasunak eskuratzea bermatzeko.

El Departamento de Educación garantizará una adecuada formación inicial, basada en el equilibrio entre formación disciplinar, pedagógica y práctica, que garantice la calidad del sistema educativo y la adquisición de las competencias necesarias por parte del alumnado.

**Etengabeko prestakuntza**

Gure hezkuntza-sistemaren kalitatea irakasleak zuzen aritzen eta etengabe ikasten duten neurrian sendotzen da. Irakasleria ahaldundu eta prestigiotsu

**Formación permanente**

La calidad de nuestro sistema educativo se fortalece en la medida en que el profesorado desarrolla correctamente su labor y se forma de

baten alde egiten dugu. Ezagutza pedagogikoa sortzeko benetako gaitasuna hezkuntza-erakundeen praktikan bertan hasten da: barneko prestakuntzan sustatu behar da ekintzan zehar mamitu beharreko hausnarketa, eta gogoeta hori alderdi teknikoetatik harago doa: kideen arteko elkarlan adostea eta testuinguruaren araberakoaz ari gara.

Irakasle ahaldunduek ezagutza pedagogikoa garatuko dute, kideekin eztabaidan eta baita gizartearen etengabeko aldaketetara egokituko den ezagutza kultural eta zientifikoa ere. Ezagutza hori irakaskuntza-lana egiten duten ingurunean gauzatu behar da, eta beren eskola-inguruneko beste irakasle eta erakundeekin etengabeko eztabaidan. Irakaskuntza ez da banakako lana; aitzitik, sareko eta lankidetzakoa da. Horretarako, ezinbestekoa da eskola egitura berriak eta antolatzeko modu berri batzuk sortzea.

Hezkuntza-administrazioak zainduko du irakasleek beren lanbide-jarduera baliabide egokien bitartez garatzen dutela, ikasleen prestakuntza eta garapenean emaitzarik onenak lortzeko. Horretarako, programa egonkor eta jarraituak garatuko ditu, eta programa horietan parte hartzea irakasleen erantzukizuna eta betebeharra izango da.

Ildo horretatik, irakasleen erantzukizuna da beren ezagutzak eta trebetasunak une bakoitzeko erronka eta eskakizunen arabera etengabe egokitzea eta moldatzea, eta, bereziki, informazioaren eta komunikazioen teknologien bilakaerara, digitalizaziora eta automatizaziora, ikasleek prestakuntza egokia jaso dezaten eta esparru horietan dituzten gaitasun eta ahalmen akademikoak ahalik eta gehien garatu ditzaten.

Era berean, irakasleek lanbidean aurreratzeko eta beharrezko den prestakuntza jasotzeko eskubidea izango dute, bai eta beren ezagutzak eta trebetasunak irakaskuntza-metodologia berrien erronketara eta iraultza teknologikoaren eskakizun zuzeneko edo zeharkakoetara egokitzeko behar diren gaitasunak garatzeko edo ikasteko eskubidea, betiere ikuspegi humanista, sozial eta ekitatibo batetik.

Erronka horiei eta agertuko direnei aurre egiteko beharrezkoak dira Administrazioa, ikastetxeak eta unibertsitateetako berariazko fakultate/eskolen elkarrizketa eta elkarlana, gutxienez bi eremutan:

- irakasleen etengabeko formakuntza kalitatezkoa lortzeko eta hobekuntza prozesuak lantzeko. Praktika horrek bakarrik bermatu dezake Administrazioak, ikastetxeek, irakasleek eta formatzaileek egiten duten esfortzua;

- irakasle-fakultate eta -eskolen funtzioen artean dagoen ikerketaren ondoriozko ezagutzaren transferentzia-ildoan, eragin zuzena baitu

manera continua. Apostamos por un profesorado empoderado y prestigiado. La auténtica capacidad de generar conocimiento pedagógico comienza en la misma práctica de las instituciones educativas, y es en la formación desde dentro donde se debe promover la reflexión en la acción, reflexión que va más allá de los aspectos técnicos: nos referimos a la colaboración colegiada, consensuada y contextualizada.

El profesorado empoderado desarrollará conocimiento pedagógico, en contraste entre iguales, así como un bagaje cultural y científico que se adecue a los cambios constantes de la sociedad. Ese bagaje se debe desplegar en el contexto donde desempeña su labor docente y en contraste continuo con otros docentes e instituciones de su contexto escolar. La enseñanza no es una labor individual, sino un trabajo en red y colaborativo. En consecuencia, resulta imprescindible crear nuevas estructuras y modos de organización escolar.

La Administración educativa velará por que el personal docente desarrolle su actividad profesional con los medios adecuados para el logro de los resultados óptimos en la formación y desarrollo del alumnado. A tal fin, desarrollará programas estables y continuados, y la participación en ellos será una responsabilidad y obligación del personal docente.

En este sentido, el personal docente es responsable de adaptar y adecuar permanentemente sus conocimientos y destrezas a los retos y exigencias de cada momento y, especialmente, a la evolución de las tecnologías de la información y de la comunicación, así como a la digitalización y automatización, con el fin de que el alumnado reciba la formación adecuada y desarrolle al máximo sus competencias y potencialidades académicas en tales ámbitos.

Asimismo, el personal docente tendrá derecho a la promoción profesional y a la formación necesaria y desarrollo o aprendizaje de las competencias necesarias para adaptar sus conocimientos y destrezas a los desafíos de las nuevas metodologías docentes y de las exigencias directas o indirectas de la revolución tecnológica, siempre desde una perspectiva humanista, social y equitativa.

Para hacer frente a esos retos y a los que se presentarán, es necesaria la interlocución y colaboración entre Administración, centros educativos y facultades/escuelas específicas de las universidades, en al menos dos ámbitos:

- vincular la formación continua y de calidad del profesorado y trabajar los procesos de mejora. Solo esta práctica puede garantizar el esfuerzo que realizan la Administración, los centros, el profesorado y los formadores;

- la línea de transferencia de conocimiento derivada de la investigación, una de las funciones de las facultades y escuelas docentes,

irakasleriaren hasierako zein etengabeko prestakuntzan. Argi dago ebidentzia zientifikoa oinarri duten interbentzio pedagogiko eta didaktikoek hezkuntza praktika bidezkoago bat dakartela, aniztasunari erantzun egokiagoa ematen dietelako.

Laburbilduz, diziplina esperimentalen oinarrietara joanda:

- berrikuntzan zentratutako proiektuak lankidetzan oinarritu eta ehunduko dira;

- berrikuntzak gauzatzeko testuinguruaren ezaugarriak ikuspegi holistiko batetik aztertzea eta saiatzea ezinbestekoa da;

- ikasteko modu berriei behar bezala erantzuteko gai izango diren profil profesionalak prestatu behar dira: ikaskuntza-prozesuak erraztea helburu duten profesionalak, berdinen artean ikastun gisa egoteko gaitasuna dutenak, lidergoa hartu eta komunitateari ekarpena egiteko gai izango direnak;

- ikastetxeen eta unibertsitateen arteko zubiak eraiki behar dira, Hezkuntza Saila gidari dela, berrikuntzan pausoak emateko, esperientzia berritzaileak ikertzeko eta garatzeko.

**Amaitzeko**

Honakoak dira aurreikusten dugun Euskal Hezkuntza Sistema eraldatzailearen ezaugarri batzuk, hezkuntzaren balioa indartuko dutenak:

- sortzailea, humanizatzailea, irekia, malgua, dinamikoa, autonomoa eta konektatua;

- hezkuntza-misioa sendotuko duena eta kolektiboa indartuko duena, sinistuta indibiduala ere halaxe indartu daitekeela;

- euskal kulturaren eta hizkuntzaren transmisioa bermatuko eta eleaniztasuna eta kulturartekotasuna sustatuko duena, eta, beraz, pertsona bakoitza eta guztiak kontuan hartuko dituena.

**JARDUKETA-PLANA**

**Ekitatea eta segregazioaren aurkako borroka**

1. Akordio honetako neurriak aktibatzeari kalterik egin gabe, elkarrizketa aktiboko prozesu bat bultzatuko da hezkuntza-komunitatearekin, 2023an eskola-segregazioaren aurkako itun bat lortzeko helburuarekin.

2. Ikastetxeen arteko kohesioa eta eskolatze orekatua bermatzen dituen esparru baten

que incide directamente en la formación inicial y continua del profesorado. Es evidente que las intervenciones pedagógicas y didácticas basadas en la evidencia científica suponen una práctica educativa más equitativa, en tanto que dan una más adecuada respuesta a la diversidad.

En resumen, acudiendo a los fundamentos de las disciplinas experimentales:

- los proyectos centrados en la innovación se basarán y tomarán cuerpo en la cooperación;

- es necesario analizar y ensayar desde una perspectiva holística las características del contexto en el que se llevan a cabo las innovaciones;

- es preciso formar perfiles profesionales capaces de responder adecuadamente a las nuevas formas de aprendizaje: profesionales que tengan como objetivo facilitar procesos de aprendizaje, capaces de trabajar entre iguales, que asuman el liderazgo y aporten a la comunidad;

- se deben tender puentes entre los centros educativos y las universidades, con el Departamento de Educación como guía para dar pasos en la innovación, la investigación y el desarrollo de experiencias innovadoras.

**Para finalizar**

El Sistema Educativo Vasco transformador que prevemos presenta las siguientes características reforzadoras del valor de la educación:

- un sistema creativo, humanizador, abierto, flexible, dinámico, autónomo y conectado;

- que refuerce la misión educativa y refuerce al colectivo, sobre la premisa de que lo individual también puede fortalecerse de la misma manera;

- que garantizará la transmisión de la cultura y lengua vascas, y promoverá el plurilingüismo y la interculturalidad, y, por lo tanto, tendrá en cuenta a todas y cada una de las personas.

**PLAN DE ACTUACIONES**

**Equidad y lucha contra la segregación**

1. Sin perjuicio de la activación de las medidas del presente acuerdo, se impulsará un proceso de diálogo activo con la comunidad educativa, con el objetivo de lograr un pacto contra la segregación Escolar en 2023.

2. Actualizar la normativa sobre admisión de alumnado, de manera que combine la libre

barruan ikastetxea askatasunez aukeratzeko aukera konbinatzen duen ikasleen onarpenari buruzko araudia eguneratzea, baremazio-irizpideak birpentsatuz (besteak beste, errenta baxuen pisu handiagoa, hurbiltasunaren pisua, puntu "dinastikoa" ezabatzea, "diskrezionala" puntua, eta abar), zenbait neurri betetzen direla egiaztatuz, hala nola ikasle ahulentzako plazak gordetzea, eta beste mekanismo batzuen ezarpena sustatuz, hala nola zerrenda bikoitzarena edo egungoen ordezko aukerak ahalbidetzen dituzten beste mekanismo batzuena.

3. HKI (hezkuntza konplexutasunaren indizea) izaera publikoz arautzea, haren osagaiekin eta aplikazioekin, ekitatearen arloko hezkuntza-politikako erabakiak hartzeko. Araudi horren barruan sartuko dira oso konplexutasun handiko eta oso konplexutasun txikiko zentroen egoera zuzentzeko beharrezkoak diren berroreka-mekanismoak eta trantsizio-aldiak ezartzea, HKIren arabera neurtuta.

4. Ikastetxeei baliabide ekonomikoak eta pertsonalak bereizita esleitzeko mekanismoak arautzea, haien HKI mailaren arabera.

5. Hezkuntza-konplexutasunaren indize handiena duten ikastetxeetan proiektu integralak sustatzea eta berariazko langileak hornitzeko mekanismoak arautzea, hala nola irakasle kualifikatuak, motibatuak eta ikastetxe horietan jarduteko pizgarriak dituztenak, bai eta horiek gidatzen dituzten zuzendaritza-taldeak ere.

6. Berandu hasten diren ikasleen eskolatzea kudeatzea, Hezkuntza Sailburuordetzak ezarritako irizpideei jarraituz, ikasle kalteberen segregazio-indizea ez handitzeko moduan, beren udalerriko edo eremuko batezbestekoa baino segregazio-ehuneko handiagoa duten ikastetxeak alde batera utzita, eta lehentasuna emanda taldeko edo irakasleko ikasle gutxiago dituzten ikastetxeei, hori guztia matrikula bizia modu orekatuan kudeatze aldera.

7. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei buruz indarrean dagoen araudia eguneratzea, aniztasunari erantzuteko esparru berrira egokituz.

8. Bekak jarduera osagarrietara eta eskolaz kanpoko jardueretara zabaltzea, ikasleak jarduera horietan parte hartu gabe gera ez daitezen arrazoi ekonomikoengatik.

9. ISEI-IVEIren Urteko Planaren barruan ekitatea behatzera eta lurralde bakoitzaren egoerari buruzko datuak jasotzera bideratutako lan-ildo

elección de centro dentro con un marco garante de la cohesión y de la escolarización equilibrada entre los centros. A tal fin se repensarán los criterios de baremación (entre ellos, el mayor peso de las rentas bajas, el peso de la cercanía, la eliminación del punto "dinástico", el punto "discrecional", etcétera), y se verificará el cumplimiento de algunas medidas como la reserva de plazas para alumnado vulnerable. Así mismo se promoverá la implantación de mecanismos como la doble lista u otros que permitan alternativas a los actuales.

3. Reglamentar con carácter público el ICE (índice de complejidad educativa) con sus componentes y sus aplicaciones para la toma de decisiones de política educativa en materia de equidad. Esta reglamentación incluirá el establecimiento de los mecanismos de reequilibrio y los períodos de transición necesarios para corregir la situación de los centros de muy alta complejidad y de muy baja complejidad, medidos con arreglo al ICE.

4. Reglamentar los mecanismos de asignación diferenciada de recursos económicos y personales a los centros, según su ICE.

5. Promover proyectos integrales en los centros con mayor índice de complejidad educativa y regular los mecanismos de provisión de personal específicos que se establezcan, tales como profesorado cualificado, motivado e incentivado para el desempeño en estos centros, así como los equipos directivos que los lideren.

6. Gestionar la escolarización del alumnado de incorporación tardía siguiendo los criterios establecidos por la Viceconsejería de Educación, de manera que no se incremente el índice de segregación del alumnado vulnerable, excluyendo a los centros que tengan un porcentaje de segregación superior a la media de su municipio o zona y priorizando a aquellos centros que tengan una ratio menor de alumnado por grupo o por profesor/a, todo ello en aras de una gestión equilibrada de la matrícula viva.

7. Actualizar la normativa vigente sobre alumnado de necesidades educativas especiales, adecuándolo al nuevo marco de atención a la diversidad.

8. Ampliar la concesión de becas a las actividades complementarias y extraescolares, de manera que ningún alumno o alumna quede sin participar en dichas becas por razones económicas.

9. Incluir dentro del Plan Anual del ISEI-IVEI una línea de trabajo dedicada a la observación de la equidad y la inclusión que recoja datos de la

bat sartzea, emaitzei, ekitateari, segregazioari, kontzentrazioari eta baliabideei dagokienez.

situación de cada territorio en lo relativo a resultados, equidad, segregación, concentración y recursos.

10. Eskola-plaza baten kostuari buruzko azterlan bat sustatzea, irakaskuntzaren doakotasun eraginkorrerantz aurrera egiteko tresna gisa.

10. Promover un estudio sobre el coste de una plaza escolar, como herramienta para avanzar hacia la gratuidad efectiva de la enseñanza.

11. Irakaskuntzaren doakotasuna behatzeko eta irakaskuntzagatik kuotak kobratzeko praktika ireki edo estali oro desagerrarazteko beharrezkoak diren kontrol-mekanismoak aktibatzea.

11. Activar los mecanismos de control necesarios para que la gratuidad de la enseñanza sea observada y quede erradicada toda práctica abierta o encubierta de cobro de cuotas por enseñanza.

12. Administrazioak funts publikoekin sostengatutako ikastetxe guztiek jarduera osagarriengatik edo zerbitzu-jarduerengatik egingo dituzten kobrantzak onartzeko prozedurak ziurtatzea, eta onartutako zenbatekoak eta haien kontzeptuak gutxienez urtean behin argitaratzea Hezkuntza Sailaren webgunean, behar bezalako gardentasuna bermatze aldera.

12. Asegurar los procedimientos mediante los cuales la Administración aprobará los cobros que todos los centros sostenidos con fondos públicos van a realizar por actividades complementarias o de servicios y publicar en la web del Departamento de Educación al menos una vez al año las cantidades aprobadas y sus conceptos, todo ello en aras a garantizar la debida transparencia.

13. Lanaldi zatitua finkatzea, behar bezala baimendutako salbuespenetan izan ezik.

13. Consolidar la jornada partida, salvo las excepciones debidamente autorizadas.

## Ikasteko eta etengabeko hobekuntzarako palankak

## Palancas para el aprendizaje y la mejora continua

14. Curriculum-dekretuak birformulatzea, bereziki Oinarrizko Hezkuntzakoa, hezkuntza-konpetentzien esparru homologagarri batera egokituz, ebaluazio-aginduak eguneratzearekin batera.

14. Reformular los decretos curriculares, especialmente el de la Educación Básica, adaptándolos a un marco homologable de competencias educativas, junto con la actualización de las órdenes de evaluación.

15. Irakasleen eta hezkuntza-komunitatearen parte-hartze zabaleko Hezkuntza Eraldatzeko Plana egitea eta garatzea, irakasleen arteko talentua identifikatu eta sustatzeko, irakasleen kidego osoarentzat trakzio-efektua izan dezaten; testuinguru berri horrek zenbait neurri hartu behar ditu kontuan, hausnarketa- eta lankidetza-kultura profesionala errazteko, eta irakasleen hasierako eta etengabeko prestakuntzarako parametro berriak diseinatu behar ditu.

15. Elaborar y desarrollar un Plan de Transformación Educativa, con amplia participación del profesorado y la comunidad educativa, que permita identificar y fomentar el talento entre docentes a fin de que puedan tener un efecto tractor para todo el cuerpo docente; este nuevo contexto debe contemplar una serie de medidas que faciliten una cultura profesional reflexiva y colaborativa, así como diseñar unos nuevos parámetros para la formación inicial y permanente del profesorado.

16. Digitalizazio-plan bat egitea eta garatzea, beharrezkoak diren azpiegiturak eta tresnak ez ezik, material digitalak, irakaskuntzarako trebakuntza-planak eta tresna horiek erabiltzeko jarraibide pedagogikoak eta metodologikoak ere barnean hartuko dituena, betiere ikasleen eskubide digitalak eta pribatutasuna errespetatuz eta baliabide teknologiko auditagarriak, berrerabilgarriak, libreak eta gardenak erabiliz.

16. Elaborar y desarrollar un Plan de Digitalización que incluya no solo el despliegue de las infraestructuras y herramientas necesarias, sino los materiales digitales, los planes de capacitación docente y las pautas pedagógicas y metodológicas de uso de estas herramientas, todo ello en el respeto a los derechos digitales y a la privacidad del alumnado y utilizando medios tecnológicos auditables, reutilizables, libres y transparentes.

17. Ikaskuntzarako Berrikuntza Zentroaren sorrera bultzatzea, eta horrek orain arte Berritzegune gisa ezagutzen zen egitura birformulatzea dakar. Zentro hori arduratuko da hezkuntzaren arloko prestakuntzaz, aholkularitzaz, ikerketaz

17. Impulsar la creación del Centro de Innovación para el Aprendizaje, lo que supone una reformulación de la estructura conocida hasta ahora como berritzegune. Este centro será el órgano responsable de la formación, el

eta berrikuntzaz.

18. Ikuskaritza-planak orientatzea, eskola-komunitateko kide guztien arau kontrol-funtzioak eta eskubideak bermatzeko dituzten eginkizunei kalterik egin gabe, eta berezkoak izanik, ikastetxeen akonpainamenduaren eta ebaluazio globalaren dimentsioa indartzeko.

19. Gure hezkuntza-sistema etengabe hobetzeko ebaluazio- eta ikerketa-esparru propioa eraikitzea, prestakuntza-tresna gisa, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua osatzen duten elementu guztiak barne hartzen dituena: ikasleak, irakasleak, curriculuma, zuzendaritzak, ikastetxea, familiak, komunitatea eta hezkuntza-sistema.

20. Ikastetxearen hizkuntza-proiektua egin eta homologatu aurretik, hezkuntza-esparru eleaniztun bat egitea, haren eginkizuna eta egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta, betiere ikastetxe guztientzako esparru komun baten barruan. Euskara ardatz hartuta bi hizkuntza ofizialen gainean egituratuko da, eta gutxienez atzerriko hizkuntza baten gainean, nahiz eta ikastetxeetan jatorrizko ikasleen hizkuntzak eta kulturak kontuan hartuko diren.

21. Euskara Ikaskuntzarako Institutua sortzea, irakasleen hizkuntza-gaitasuna eta gaitasun metodologikoa hobetzeko, eskola-materiala ekoizteko eta hizkuntzak ikasteko proposamen onenei buruzko ikerketa egiteko, bereziki diglosia egoeretan. Ez du inolako funtziorik izango ikasleen mailak egiaztatzeko.

### Euskal Hezkuntza Sistemaren plangintza estrategikoa

22. Eskola-plangintzari buruzko araudia eguneratzea, gutxienez honako irizpide hauek kontuan hartuta:

    a) Jaiotza-tasaren jaitsieraren testuinguru honetan, plangintza arrazionalizatzea, eskariaren beharretara egokitutako eskaintza eginez, gaineskaintzak eta azpieskaintzak saihestuz segregazioa areagotzeko aukera eman baitezakete.

    b) Ikastetxeen arteko aniztasunaren banaketa orekatua.

    c) Eskariaren zordun ez ezik, eskaintza egingo da hezkuntza-plangintzaren, eskaintza publiko nahikoa ziurtatzearen, hezkuntzan parte hartzearen eta gizarte-kohesioa bilatzearen printzipioen

asesoramiento, la investigación y la innovación en el ámbito educativo.

18. Orientar los planes de inspección, de manera que, sin perjuicio de las funciones de control normativo y de garantía de los derechos todos los miembros de la comunidad escolar, que le son intrínsecas, se refuerce la dimensión del acompañamiento y la evaluación global de centros.

19. Construir un marco propio de evaluación e investigación para la mejora continua de nuestro sistema educativo, como un instrumento formativo y que abarque todos los elementos que conforman el proceso de enseñanza-aprendizaje: alumnado, profesorado, currículo, direcciones, centro escolar, familias, comunidad y sistema educativo.

20. Elaborar un marco de educación plurilingüe, previo a la elaboración y homologación de su proyecto lingüístico de centro, teniendo en cuenta su función y su situación sociolingüística, siempre dentro de un marco común para todos los centros. Sobre el eje del euskera se estructurará sobre las dos lenguas oficiales, y al menos una lengua extranjera, si bien haciendo presentes en los centros las lenguas y culturas de los alumnos de origen.

21. Crear el Instituto para el Aprendizaje de Euskera, con la finalidad de mejorar la capacitación lingüística y metodológica del profesorado, la producción del material escolar y la investigación sobre las mejores propuestas para el aprendizaje de las lenguas, particularmente en situaciones de diglosia. No tendrá ninguna función de acreditación de los niveles del alumnado.

### Planificación estratégica del Sistema Educativo Vasco

22. Actualizar la normativa sobre planificación escolar, que considere, al menos, los siguientes criterios:

    a) La racionalización de la planificación que, en este contexto de bajada de natalidad, haga una oferta ajustada a las necesidades de la demanda, evitando las sobreofertas, y las infraofertas, que puedan dar ocasión a un aumento de la segregación.

    b) Una distribución equilibrada de la diversidad entre los diferentes centros.

    c) La elaboración de la oferta que no sea deudora exclusivamente de la demanda, sino que se realizará bajo los principios de planificación educativa, de aseguramiento de una oferta pública

arabera.

d) Ikastetxe publiko idealaren tamainari buruzko hausnarketa estrategikoa, bere testuinguruari egokitua, bai eta kalitatezko eskaintza publiko bideragarri eta iraunkorra eratzeko beharrezkoak diren eraldaketa-prozesuei buruzkoa ere, IPIen sustapena barne.

23 Onartzea, Legebiltzarraren partaidetzarekin, euskal hezkuntza-zerbitzu publikoa ematen duten ikastetxeek, gizarte-intereseko terminoetan oinarrituta, bete beharko dituzten funtzionamendu publikoaren ezaugarrien birformulazioa. Adostutako betebeharrak eta ezaugarriak betetzen dituzten ikastetxe publikoen eta itunpeko ikastetxe pribatuen bidez emango da euskal hezkuntza-zerbitzua. Eskola publikoak funtsezko zeregina izango du hezkuntzaren euskal zerbitzua ematen duten eragileen artean. Itunpeko ikastetxeen finantzaketa publikoa adostutako irizpideak betetzearen baldintzapean egongo da.

24. Euskal hezkuntza-zerbitzuko ikastetxe guztiak honako printzipio hauen arabera arautuko dira: diskriminaziorik eza; gardentasuna; irabazi-asmorik eza; ikasle kalteberei eta ikasleen aniztasunari arreta ematea; hezkuntza formalean esku hartzen duten sektoreen parte-hartze demokratikoa; segregazioaren aurkako eta inklusioaren, ekitatearen eta aukera-berdintasunaren aldeko konpromisoa; Eusko Jaurlaritzak ezarritako curriculumarekiko eta ebaluazio-mekanismoekiko errespetua; euskara hezkuntza-sistemaren barruan lehenestea, hezkuntza-jardueran zein harreman profesionaletan, baita ikasleen eta irakasleen arteko harreman formal eta ez-formaletan ere, eta ezarritako hizkuntza-helburuak betetzea, eta horretarako, Hezkuntza Sailak baliabide espezifiko batzuk emango dizkie euskararen presentzia urria duten ingurune soziolinguistikoetan lan egiten duten ikastetxeei, beren hezkuntza-proiektuak garatzeko. Era berean, Euskal Hezkuntza Zerbitzua ematen duten ikastetxeek sexu- eta genero-askatasuna bermatu beharko dute; laikotasuna, lege organikoak ezarritako gutxienekoa izango da ikastetxeek Erlijio irakasgaiari eskain diezaioketen gehienekoa eta doktrinamendurik ez dela izango bermatuko dute; hezkuntza-proiektuaren lidergo demokratikoa bermatuko duen ikastetxeen gobernantza sustatuko da, hezkuntza-komunitatearen parte-hartze demokratikoa ahalbidetuz; tokiko hezkuntza-proiektuetan parte hartzea, eta langileak kontratatzeko prozesu garden eta demokratikoak.

suficiente, de participación educativa y de la búsqueda de la cohesión social.

d) La reflexión estratégica sobre el tamaño de centro público ideal adecuado a su contexto y los consiguientes procesos de transformación que se vean necesarios para configurar una oferta pública de calidad, viable y sostenible, dentro de la cual se incluye la promoción de los IPI.

23. Aprobar, con la participación del Parlamento, la reformulación de las características de funcionamiento público que, basadas en términos de interés social, deberán cumplir los centros que realicen la prestación del servicio público vasco de educación. La prestación del servicio vasco de educación se realizará a través de los centros públicos y de centros privados concertados que cumplan con las obligaciones y características acordadas. La escuela pública jugará un papel esencial entre los agentes que prestan el servicio vasco de la educación. La financiación pública de los centros concertados estará condicionada al cumplimiento de los criterios acordados.

24. Todos los centros del servicio vasco de educación se regirán por los principios de no discriminación; transparencia; carencia de ánimo de lucro; atención al alumnado vulnerable y a la diversidad del alumnado; participación democrática de los diferentes sectores concernidos en la educación formal; compromiso contra la segregación, con la inclusión, la equidad y la igualdad de oportunidades; respeto al currículo y mecanismos de evaluación establecidos por el Gobierno Vasco; priorización del euskera dentro del sistema educativo, tanto en la actividad educativa como en las relaciones profesionales, así como en las relaciones formales e informales entre el alumnado y el profesorado, y el cumplimiento de los objetivos lingüísticos establecidos, para lo que el Departamento de Educación facilitará recursos específicos a los centros que trabajan en entornos sociolingüísticos con escasa presencia del euskera para el desarrollo de sus proyectos educativos. Así mismo, los centros que presten el servicio vasco de educación deberán garantizar la libertad sexual y de género; la laicidad, el mínimo establecido por la ley orgánica será el máximo que los centros puedan ofrecer a la asignatura de Religión y garantizarán que no haya adoctrinamiento; se promoverá una gobernanza de los centros que garantice el liderazgo democrático del proyecto educativo, posibilitando la participación de la comunidad educativa; participación en proyectos educativos locales, y procesos transparentes y democráticos de contratación de personal.

Irizpide horiek arian-arian betetzeko konpromisoa hartzen duten ikastetxeek finantzaketa publikoa jasoko dute, eta, ondorioz, Euskal Hezkuntza Zerbitzuko partaide izango dira.

25. Beharrezkoa den araudia garatu Administrazioarekin itunak egiten dituzten ikastetxeek auditoretzei eta kontabilitateko gardentasun-arauei atxikitzeko, diru publikoaren erabileran izaera finalista ziurtatzeko eta beste finantzaketa-iturri batzuen joan-etorrian euskal hezkuntza-zerbitzuko ikastetxe guztien artean irizpide auditagarriak bateratzeko. Araudi horretan, auditoria ekonomikoko lanak egiteko zehaztuko den administrazio-unitatea sortuko da.

26. Beharrezko den araudia garatzea ikastetxeei beharrezko dituzten langileak eta baliabideak esleitzeari begira programa-kontratuak formalizatzea sustatzeko, urteko planak eta izaera bereziko edo estrategikoko proiektuak garatzearen baldintzapean, Hezkuntza Sailaren ildo estrategikoen esparruan. Kontratu horiek sustatuko dira, bereziki konplexutasun handiko ikastetxe guztietan, Administrazioaren laguntzarekin hasierako desabantaila-egoera irauliko duten proiektu arrakastatsu osoak edo partzialak bultzatzeko aukera izan dezaten.

27. Eskola Publikorako Plan Estrategiko bat onartzea, haren kalitatea hobetzeko hainbat jarduera sustatzeko, hala nola ikastetxeen balio erantsia hobetzera bideratutako neurriak, egungo plantillak sendotzea, hezkuntza-figura berriak sortzea, irakasleen egonkortasuna, azpiegiturak berritzea eta hobetzea. Era berean, ikastetxe publikoen perimetroa handitzea sustatuko du, hirigune berrietan ikastetxe publikoak sortuz, plaza publikoak zabalduz, eta, bereziki, hiri-eremu horietan helburu eraginkorragoak izango direla ziurtatuz. Plan hori Eusko Legebiltzarrean aurkeztuko da.

28. Ikastetxe publikoen autonomia garatuko duen arau-esparrua sustatzea.

29. Ikastetxe publikoek irakasleen plazak zehaztu ahal izateko mekanismoak eta araudia garatzeko lan egitea, Ordezkaritza Organo Gorenari entzun ondoren.

30. Ikastetxe publikoetako zuzendaritzei buruzko araudia eguneratzea, hezkuntza-lidergoa kalitatearen funtsezko faktoretzat hartuta,

Los centros que se comprometan al cumplimiento progresivo de estos criterios recibirán financiación pública y, en consecuencia, formará parte de la prestación del servicio vasco de educación.

25. Desarrollar la normativa necesaria para que los centros que concierten con la administración se sujeten a las auditorías que se estipulen y a las normas de transparencia contable que permitan asegurar el carácter finalista en el empleo del dinero público y la unificación de criterios, también auditables, entre todos los centros del servicio vasco de educación en la afluencia de otras fuentes de financiación. Dicha normativa contemplará la creación de la unidad administrativa que se determine para realizar las tareas de auditoria económica.

26. Desarrollar la normativa necesaria para promover la formalización de contratos-programa para la asignación de personal y recursos necesarios a los centros, condicionada al desarrollo de sus planes anuales y proyectos de carácter singular o estratégico, en el marco de las líneas estratégicas del Departamento de Educación. Se promoverán estos contratos, especialmente en todos aquellos centros de alta complejidad, que les permitan, con el apoyo de la Administración, el impulso de proyectos de éxito totales o parciales que reviertan la situación de desventaja de partida.

27. Aprobar un plan estratégico para la escuela pública que promueva un conjunto de actuaciones para la mejora de su calidad tales como las medidas encaminadas a mejorar el valor añadido de sus centros, la consolidación de las plantillas actuales, la creación de nuevas figuras educativas, la estabilidad del profesorado, la renovación y mejora de sus infraestructuras. Asimismo, promoverá la ampliación de su perímetro por medio de la creación de centros públicos en nuevas zonas urbanas, la ampliación de las plazas públicas, especialmente en las zonas urbanas más densas, por los mecanismos de planificación que se estimen más eficaces para ese fin, y asegurando que toda familia que desee una plaza en una escuela pública pueda acceder a ella. Dicho plan será presentado en el Parlamento Vasco.

28. Promover un marco normativo que desarrolle la autonomía de los centros públicos.

29. Trabajar para desarrollar los mecanismos y la normativa que permita que los centros educativos públicos, puedan perfilar las plazas del profesorado, oído el OMR.

30. Actualizar la normativa sobre las direcciones de los centros públicos, entendiendo el liderazgo educativo como un factor primordial de calidad

akordio honetan jasotzen diren aldaketen testuinguruan.

31. Gizarte-intereseko ikastetxeen onarpena duten itunpeko ikastetxeei aukera ematea, arian-arian finantzaketa publikoa lor dezaten Administrazioaren titulartasuneko ikastetxeen antzeko irizpideekin, eskaintza eta zerbitzu beraren esparruan, eta betiere Administrazioaren aurrekontu-baliabideen esparruan.

32. Hezkuntza-itunei buruzko araudia eguneratzea, aurreko puntuetan garatutakoa kontuan hartuta, bereziki Euskal Hezkuntza Zerbitzua ematen duten ikastetxeentzat definitutako eskubideen eta betebeharren esparrua.

33. Hezkuntza-itunei buruzko hurrengo seiurtekoa berritzea, honako irizpide hauen arabera: seiurtekoa plangintzaren hiru urteko bi zatitan banatuko da, baina ituna egiteko, lehenengo hirurtekoan, ikasle kalteberen banaketa orekatua egin beharko da, eta, oro har, heterogeneotasuna sustatzen duten eta eskola-segregazioa eragozten duten neurri guztiak hartu beharko dira, bai eta eskaintza eskaerara egokitu ere, Administrazioaren ofiziozko plangintzaren arabera. Bigarren hirurtekotik aurrera, aurrekoaz gain, Euskal Hezkuntza Sistemaren/Hezkuntzaren Euskal Legean ezarritako plangintza-irizpide orokorrak hartuko dira kontuan.

34. Haurreskolen partzuergoa berrindartzea, eskaintza unibertsaleko, kalitateko eta doako zerbitzu publiko bihurtuz.

35. Ikastetxeko hezkuntza-proiektuan sartuta dauden eskola-jantokiek beren zeregin pedagogikoa indartuko dute, eta eskola publikoaren plan estrategikoaren parte izango dira, haien azpiegiturak eta zerbitzuak hobetzeko.

36. Hezkuntza-administrazioaren ofiziozko plangintzaren beharrei erantzuten dieten ikastetxeak publifikatzeko araudia garatzea.

### Kogobernantza eta partaidetza

37. Gehienez ere urtebeteko epean onartzea Euskal Eskola Publikoaren Kontseilua eratzea ahalbidetuko duen araudia.

38. Tokiko administrazioekiko kogobernantza-esparrua garatzea. Esparru horrek ez du ekarriko toki-araubidearen indarreko araudia aldatzea, eta udalerrien eta udal eskola-kontseiluen parte-hartzea bideratzeko, lerrokatzeko eta zabaltzeko balioko du,

en el contexto de los cambios que se recogen en el presente acuerdo.

31. Posibilitar a los centros concertados que tengan el reconocimiento de centros de interés social que, de manera progresiva, alcancen una financiación pública con criterios análogos a los centros de titularidad de la Administración, en un marco de misma oferta y servicio, y siempre en el marco de las disponibilidades presupuestarias de la Administración.

32. Actualizar la normativa sobre conciertos educativos, considerando lo que se haya desarrollado en los puntos anteriores, en especial el marco de derechos y deberes que se haya definido para los centros que presten el Servicio Vasco de Educación.

33. Renovar el próximo sexenio sobre conciertos educativos con los siguientes criterios: el sexenio se dividirá en dos partes trienales de planificación, pero el concierto estará condicionado, desde el primer trienio, a un reparto equilibrado del alumnado vulnerable y, en general, a la asunción de todas aquellas medidas que fomenten la heterogeneidad e impidan la segregación escolar, así como al ajuste de la oferta a la demanda según la planificación de oficio de la Administración. A partir del segundo trienio, además de lo anterior, se tomarán en consideración los criterios generales de planificación establecidos en la Ley Vasca de Educación/del Sistema Educativo Vasco.

34. Reforzar el consorcio de Haurreskolak, convirtiéndolo en un servicio público de oferta universal, de calidad y gratuita.

35. Los comedores escolares, integrados en el proyecto educativo del centro, reforzarán su papel pedagógico y formarán parte del plan estratégico de la escuela pública, con el fin de mejorar sus infraestructuras y servicios.

36. Desarrollar la normativa que permita la publificación de centros que respondan a las necesidades de la planificación de oficio de la Administración educativa.

### Cogobernanza y participación

37. Aprobar en un plazo no superior a un año la normativa que permita la constitución del Consejo de la Escuela Pública Vasca.

38. Desarrollar el marco de cogobernanza con las administraciones locales. Este marco, que no implicará la modificación de la normativa vigente del régimen local, servirá para orientar, alinear y ampliar la participación de los municipios y de los consejos escolares

gutxienez honako gai hauetan:

a) Familiei, batez ere ikasle kalteberen familiei, udalerriko eskola-eskaintzari buruzko informazioa, orientazioa eta laguntza emateko bulegoak sortzea;

b) Udal-bulegoak edo eskualde-bulegoak gaitzea aurreinskripzio telematikoaren eskabidean eta matrikulazio-prozesuetan laguntzeko;

c) Udalerriaren edo barrutiaren hezkuntza-eskaintzaren plangintzari buruzko proposamenak egitea, bai eta ikasleak modu inklusiboagoan eskolatzeko irizpideak eta neurriak proposatzeko ere;

d) Gizarte eta hezkuntza-programak garatzea, guraso-elkarteekin eta inguruko kultura-, kirol- eta aisialdi-elkarteekin lankidetzan.

39. Eskola Kontseiluei buruzko 13/1988 Legea eguneratzea, Euskadiko Eskola Kontseiluaren funtzioak eta osaera berrantolatzeko, Udal Kontseiluak berraktibatzeko eta ikastetxeetan partaidetza komunitarioaren formula berriak bultzatzeko.

**Beste jarduera batzuk**

40. ESKOLA-ITUN HONEN GARAPENAREN PLANGINTZA: jarduketen dokumentu honetan jasotako jarduera guztiak hedatzeko plangintzan 2034ko zerumuga markatzen dugu, bi seiurtekotan banatuta: 2022-2028 eta 2028-2034.

41. DENBORALIZAZIOA: aurtengo Legebiltzarreko bilkura-aldia amaitu baino lehen, Hezkuntza Sailak lehen seiurtekoan egingo diren jardueren denboralizazioa aurkeztuko du. Lehenengo aldia igarota, beharrezko diren egokitzapenak egingo dira, eta bigarren plangintzan aurkeztu beharko dira.

**Hezkuntza-itunetik akordio sozialera**

42. Hezkuntza-akordioak euskal hezkuntza-eragileen esku-hartze aktiboa eskatzen du. Orain arte eraikitakotik hasi eta etorkizunari eraginkortasunez eta konfiantzaz begiratuz ekin behar zaio bide horri. Ildo horretan, garrantzia emango zaio hezkuntza-akordioaren garapen sozialari, beharrezkotzat jotzen baitugu estrategikotzat jotzen dugun lege hau oinarri politiko eta sozial sendoetan eraikitzea.

municipales en, al menos, las siguientes cuestiones:

a) Crear oficinas de información, de orientación y de acompañamiento a las familias, sobre todo del alumnado vulnerable, sobre la oferta escolar del municipio;

b) Habilitar oficinas municipales o zonales para acompañar en la solicitud de la preinscripción telemática y en los procesos de matriculación;

c) Hacer propuestas sobre planificación de la oferta educativa del municipio o circunscripción, así como para proponer criterios y medidas para una escolarización más inclusiva del alumnado;

d) Desarrollar programas socioeducativos en colaboración con AMPAs y asociaciones culturales, deportivas y de ocio y tiempo libre del entorno.

39. Actualización de la Ley 13/1988 de Consejos Escolares, que permita una reorganización de las funciones y de la composición del Consejo Escolar de Euskadi, una reactivación de los Consejos Municipales, así como el impulso de nuevas fórmulas de participación comunitaria en los centros.

**Otras actuaciones**

40. PLANIFICACIÓN DEL DESARROLLO DE ESTE PACTO ESCOLAR: para el despliegue del conjunto de actuaciones recogidas en el presente documento de actuaciones nos marcamos el horizonte del 2034, dividido en dos sexenios de planificación: 2022-2028 y 2028-2034.

41. TEMPORALIZACIÓN: antes de la finalización de periodo de sesiones parlamentarias del presente año, el Departamento de Educación presentará una temporalización de las actuaciones que se llevarán a cabo en el primer sexenio. Pasado el primer período, se harán los reajustes necesarios, que deben ser presentados en la segunda planificación.

**Del pacto educativo al acuerdo social**

42. El acuerdo educativo requiere de la intervención activa de los diferentes agentes educativos vascos. Hay que abarcar este camino desde lo construido hasta ahora y mirando al futuro con eficacia y confianza. En este sentido, se dará importancia al desarrollo social del acuerdo educativo, ya que consideramos necesario construir sobre bases políticas y sociales sólidas esta ley que consideramos estratégica.

Finantzaketa

43. Euskal hezkuntzan inbertsioa handitzeko konpromisoa azpimarratuko dugu, 2035. urteari begira. Ondorioz, Hezkuntzari buruzko Euskal Legeak memoria ekonomiko bat egingo du, hezkuntza-akordio honen helburuak lortzeko eta han jasotako esku-hartze ildoak eta neurriak aplikatzeko beharrezkoak diren aurrekontu-konpromisoak zehazteko.

Eusko Legebiltzarra, 2022ko martxoaren 28a

**Batzordeko idazkaria, Gloria Sánchez Martín. Ontzat emana, batzordeburua, Gorka Álvarez Martínez**

***

Financiación

43. Incidiremos en el compromiso de incrementar la inversión en la educación vasca, de cara al 2035. En consecuencia, la Ley Vasca de Educación elaborará una memoria económica, en la que se concreten los compromisos presupuestarios necesarios para la consecución de los objetivos del presente acuerdo educativo, así como para la aplicación de sus líneas de intervención y medidas.

Parlamento Vasco, 2022ko martxoaren 28a

**La secretaria de la comisión, Gloria Sánchez Martín. Visto bueno, el presidente de la comisión, Gorka Álvarez Martínez**

***

# INTERPELAZIOAK
# INTERPELACIONES

***En relación con las medidas necesarias para las empresas vascas ante la crisis motivada por la invasión de Ucrania*** (Admisión a trámite) (12/10.04.01.00135)

La Mesa, en su reunión del día 29 de marzo de 2022, acuerda admitir a trámite la INTERPELACIÓN formulada a la consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente por D. José Manuel Gil Vegas, parlamentario del grupo Vasco Popular-Ciudadanos, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

A la Mesa del Parlamento Vasco

José Manuel Gil Vegas, parlamentario del grupo Vasco Popular-Ciudadanos, al amparo del vigente Reglamento, presenta la siguiente interpelación dirigida a doña Arantxa Tapia, consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, en relación con las medidas necesarias para las empresas vascas ante la crisis motivada por la invasión de Ucrania.

Justificación

El día 20 de febrero comenzó la invasión de Ucrania por parte de Rusia, con consecuencias económicas muy importantes para toda Europa y para Euskadi. A los pocos días, el propio lehendakari pidió a los vascos que se preparasen para una "economía de guerra". Lo cierto es que la guerra, el encarecimiento de los precios de la energía y la huelga de transportes, entre otros factores, están llevando al límite a nuestras empresas.

***Ukrainaren inbasioak eragindako krisiaren aurrean euskal enpresentzat beharrezkoak diren neurriei buruz*** (Izapidetzeko onartzea) (12/10.04.01.00135)

Mahaiak, 2022ko martxoaren 29ko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea José Manuel Gil Vegas Euskal Talde Popularra-Ciudadanos taldeko legebiltzarkideak Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari egindako INTERPELAZIOA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari bidal dakiola eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

José Manuel Gil Vegas Euskal Talde Popularra-Ciudadanos taldeko legebiltzarkideak, indarrean dagoen Erregelamenduaren babesean, interpelazio hau egiten dio Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburu Arantxa Tapia andreari, Ukrainaren inbasioak eragindako krisiaren aurrean euskal enpresentzat beharrezkoak diren neurriei buruz.

Zioa

Otsailaren 20an Ukraina inbaditzeari ekin zion Errusiak, eta horrek ondorio ekonomiko oso garrantzitsuak izan ditu Europa osoarentzat eta Euskadirentzat. Handik egun gutxira, "gerra-ekonomia" baterako presta zitezela eskatu zien lehendakariak berak euskaldunei. Kontua da gerra, energiaren prezioen garestitzea eta garraio-greba, beste faktore batzuen artean, gure enpresak kinka larrian jartzen ari direla.